



# ARGIA

OLATZ MERCADER

Patxi Ezkiagaren sexu-abusuez:

***“Euskal kulturaren mundua erabat isilik gelditu da”***

14-18. orrialdeak

#2.882 | 2024 / 09 / 01 | 4,00 €



**Laborantza ekologikoak dakar esperantza Balutxistanen**

12 | KLIMA ALDAKETA



**Lanerako balioko dien euskara ikasten**

24 | ETORRI BERRIAK



**“Zientziak azken bost mendeetan erabaki du positibista izatea”**

46 | JON MENTXAKATORRE

Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
**BIZUM** bidez ordaindu daiteke.

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA**

## Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | ARKAITZ ZARRAGA
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | ENEKO GORRI

## Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO  
BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU



### 24 | EUSKARA LAN GIROAN IKASTEKO BEHARRAZ

Lanaren bidez etorri berriei hizkuntza irakasteko munduan dauden metodologia eta estandarren berri jaso du Olaia L. Garaialde. Zaintza lanetan ari den pertsona bat ere elkarrizketatu du, eta euskara ikasteko dituen trabak azaldu ditu.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | BALUTXISTAN

**Laborariek eredu ekologikoa dute muturreko eguraldiei aurre giteko soluzio**

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | OLATZ MERCADER

**“Ederra litzateke AHT finantzatzea EITB maratoiarekin eta minbiziaren ikerkuntza zergekin”**

Onintza Enbeita

30 | NAZIOARTEA | SEBAHAT TUNCEL

**“Ohikoa bihurtu da politikari kurduak espetxeratzea”**

Jon Hidalgo

34 | NAZIOARTEA

**Lorategi bat desagertuei**

Ane Azkona

38 | GORPUTZ HOTSAK | JUNCAL CEPEDA

**“Desgaituontzat oso gertu eta oso urrun dago itsasoa”**

Olaia L. Garaialde

46 | KULTURA | JON MENTXAKATORRE

**“Gure arbasoek zerbait ikusten zuten guk ikusten ez dugun lekuan”**

Maddi Sarasua


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

### Jabetza

 Komunikazio Biziagora  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estitu Eizagirre, Gorka Peñarikano,  
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,  
Julen Ugartemendia, Lander Arbelaitz,  
Leire Artola, Manex Moreno,  
Manex Usaralde, Mikel Garcia,  
Onintza Irureta, Olaia L. Garaialde,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,  
Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua:** SS 837-2012

**ISSN:** 0213-909X

**Batzorde parekidea:** 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoko

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:


## Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitaratu  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da  
testuontzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA





# Legea errespetatu

Euskal Herriko jairik jendetsuenetakoetan egunean 15 ordu inguru lan egiten dute 100 bat euro lortzeko. Kale gorrian, ordu txikietan, paperik gabe eta etengabeko mehatxupean. Horiei, manteroei, saria eman diete Bilboko Konpartsek. Bilboko udaltzainek, aldiz, borrakadak eta isunak banatu dizkiete festetan (ere bai). "Egoera zaugarrian dauden pertsonak dira, baina legea eta Polizia errespetatu behar dituzte. Inkestek esaten digute jendeak polizia gehiago nahi duela kalean", dio Bilboko alkateak, bere agindupeko poliziek langile migratzaileak behin eta berriro txosnagunetik kanporatu izana justifikatu nahian. "Legea errespetatu behar da", azpimarratu du. Lan ultraprekarioen bidez bizitza aurrera ateratzen saiatzen ari diren azal iluneko, behartsu eta paperik gabekoen atzetik Polizia bidaltzen ei duen legea. Eta, kasualitatez edo, manteroen artikulua berberak maila masiboan salerosi eta mugak oztoporik gabe zeharkatzen dituzten enpresari aberatsei alfonbra gorria jartzan dien lege hori bera da errespetatu beharrekoa.

OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

AXIER LOPEZ

# Kongo, tximino baztangari aurre egiteko txertoen zain

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**K**ongoko Errepublika Demokratikoa ari da gehien jasaten tximino baztanga edo mpox-en epidemia. Urtea hasi zenetik 16.700 kasu atzeman dituzte, eta ia 600 pertsona zendu dira herrialdean; gehien-gehienak, haurrak.

Osasunaren Mundu Erakundeak abuztuaren 14an izendatu zuen osasun larrialdi egoera, tximino baztanga bereziki indartsu ari zelako agertzen eta zabaltzen Afrikako hainbat lekutan, besteak beste, Kongoko Errepublika Demokratikoan, eta apalago bada ere, baita Burundin, Kenyan, Ruandan eta Ugandan ere. Milaka eta milaka kasu atzeman dituzte kontinentean, eta heriotzak ere asko dira. Kongon bakarrik, joan den asteko datuen arabera, 570; horietatik 480 inguru haurrak, Unicef-en arabera, eta asko 5 urtez azpikoak, horiek baitute hilkortasun tasarik handienetakoa. Gobernuz kanpoko erakundearen esanetan, tximino baztangaren egungo aldaera inoiz baino gehiago ari da heda-

Afrikan 200.000 dosi inguru daude eskuragarri, eta gutxienez, egungo krisiari ziurtasunez aurre egiteko, hamar milioi dosi beharko lirateke

tzen haurren artean. Horregatik, horiek zaintzeko premia aldarrikatu du.

OMEk larrialdi egoera deklaratu zuenez geroztik, nabarmenki, Europa eta oro har Mendebaldea barne eztabaidan aritu da, beste pandemia baten beldurrez-edo, ea mugak itxi ala ez eta ea orokorki herritarrak txertatu ala ez, zer neurri hartu eztabaidatzen. Horretan jarri da fokua, nahiz benetako fokua, premia beroa, Afrikan egon.

## KONGO: "EKARRI TXERTOAK"

OMEk hilaren 19an agerraldi baten bidez eskatu die tximino baztanga edo mpox-ek kaltetutako herrialdeei txertatze-plan bat diseinatu eta martxan jartzeko. Eskakizuna, beraz, Afrikari zuzendu zaio. Kongori, bereziki. Eta Kongoko Osasun ministro Samuel-Roger Kamba ez da isilik geratu: Mendebaldeari txertoak eskatu dizkio, "munduko gizateriaren onerako". Antza, hori esan duenerako, AFP agentziaren arabera, kontaktuak eginak zituen Kongoko Gobernuak; Japoniak 3,5 milioi dosi hitzemanak dizkio aste honetarako, eta AEBek beste 50.000 bat. "Plan estrategikoa egina daukagu, inork ez dezala pentsa horrela ez denik; espero duguna da txertoak iristea, orain", esan du ministroak, *France 24*-k jaso duenez.

Txertoa, baina, ez da denentzat. Badira 18 urtetik gorakoentzakoak, eta badira haurrentzakoak ere. Europako Batasunak dituenak helduentzat dira, nahiz krisi larri egoeran nerabeei ipintzea ere aurreikusita dagoen. Japoniak emango dituen 3,5 milioi dosi horiek guztiak, esaterako, haurrentzat izatea espero dira. Gaur-gaurkoz, Gaixotasunen Prebentziorako eta Kontrolerako Afrikako Zentroak emandako datuen arabera, kontinentean 200.000 dosi inguru daude eskuragarri, eta gutxienez, egungo krisiari ziurtasunez aurre egiteko, hamar milioi dosi beharko lirateke. Alegia, 50 aldiz dosi gehiago behar ditu Afrikak. Japoniak eta AEBek iragarri dituztenak, beraz, ez dira aski izango.

Kongoko Osasun ministroak oroitarazi du 2022an gertatu zen tximino baztangaren mundu mailako agerraldian Mendebaldeak ez zuela ongi jokatu. Bere esanetan, txertoak ez ziren behar beste eta behar bezain azkar heldu kontinentera, nahiz "nabarmen sobera" eduki Europian eta AEBetan. ●



## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Gainkomunikatuz



UXUE APAOLAZA LARREA

Zergatik ez utzi. Zutabeak idazten dituenak atzetik izaten ditu beti garaiz erretiratzearen apologetak. Agortu baino lehen. Gaiak, niri, ezin agortu, ez ditudanez; ezertan ez naiz aditua, eta inoiz ez dut izan Euskal Herriari transmititzeko mezurik. Ez lidake azalpenak balioko, hasi ere ez bainukeen egin beharko orduan. Dotozeziaren klabeak ilunak iruditu zaizkit beti. Egia da honek zikintzen duela, noizean behin, beti ez bada, erridikuluaren ertzean ibiltzen baikara (presaka janzten den irakaslearen bragetako kremailea irekiaz), eta ordenagailu aurrean zintzoa dena oso biluzik dabilelako gero, iritziak bistan. Nekea eta beldurra lirateke nire arrazoiak.

Beldurra baretzeko, lekuari kentzen diot garrantzia, eta irudikatzen dut zutabeak nik eta koordinatzaileak baino ez ditugula irakurtzen: gezurra, beti ari naiz beste norbaiti erantzuten, eta komunikatzen garen bakoitzean bilatzen dugu kanalaren tamainako interlokuzioa. Ateoa eta bakartia izaki, isilean pentsatzen badut neure buruak baino ez dit entzuten eta erantzuten; idazten badut, ordea, hartzailea bistan ez badago ere, idatzitakoa nonbait galduta geratzen bada ere, ez hona, ez liburu batera eraman gabe, zirriborratutako lehen hizkiek interlokutorea irudikatzen dute beren esanahi propioa baino. Heriotzari aurre egiteko modu bat gehiago da hau, agian: eta hau gainkomunikatzea da.

Garun batzuk gainkomunikatu egiten dira, lehenengo garezurrean daramatenarekin, eta garezurrean daramanak ezin dio eutsi gainkomunikazio hori ulertzeko grinari, eta galderak pilatu eta pilatu, esneak gainezka egiten zuenean bezala hurbiltzen dira orri zurira, eta horrela gainpentsatzen/gainitauntzen dute Israel, ortodontziaren gorakada, edo hasi berri duten harremana. Ez dira poetak edo kantautoreak. Narratzaileak dira. Hurrengo galderarentzat harmaila nolabait sendoa nahi dute, eta sendoa azken tolesduraren itzala narra dakiokkeen zerbait da: baina ezin lortu, gainnarratuz birrintzen baitute sendo itxura hartu duena. Gainkomunikatuz ikasi nahi dute parekoa, gainkomunikatuz bakartzen dira, gainkomunikatuz gaur esana ñabardura askok jantzi du biharko, eta etzirako beste zerbait da. Eta ezin gelditu.

Beldurra ahazten zaigu ulertu beharrez, hartarako laguntza eske, Telegramen, emailetan, gutunetan, ipuinetan, zutabeetan... obszenoki gainkomunikatuz. ●

## EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA  
[www.adurlarrea.com](http://www.adurlarrea.com)


## Indarkeria matxista

Emazteari laban batekin eraso egin dion ertzain bati mehatxu larriak egotzi dizkiote eta ez indarkeria matxista, hilabete batzuk lehenago emakume moduan erregistratu zelako. Fiskaltzak uste du genero indarkeriaz epaitua izatetik libratzeko egin zuela. Ertzaina kargutik kendu dute behin-behinean.

## Osakidetza

Herritar batek bihotz-gelditzea izan zuen joan den astean, baina Laudioko Zainketa Intentsiboetarako Unitate mugikorrek ezin izan zuen artatu, ez zuelako medikurik. Bilboko unitate mugikorrek bertaratu behar izan zuen eta horrek nabarmen atzeratu zuen ospitaleratze prozesua.

## Trans pertsonak

Gurutzetako ospitaleko Genero Identitatearen Unitatean arreta jasotzen duten transei lehen harrera psikiatrikoko profesionalak egitea transak patologizatzea dela salatu dute, eta harrera endokrinoak egin beharko lukeela. Harrera endokrinoak egiten diela erantzun dute Gurutzetatik.

# Autobus geltokia



ULA IRURETAGOIENA

**H**iri askotako tren geltokiek XIX. mendeko burdinazko egituraren edertasun gorena azaltzen dute, hiriaren epizentrorra iristearen ongie-torri goraldiarekin batera. Hirira ate nagusitik sartzea bezalakoa da, arkitektura eta toki perla bat. Hiri askotan, baina, birdentsifikazio edo berregitura-tze fenomenoetan, tren geltoki eta tren-errailak lurperatzen ari dira, hiri erdian lurzoru libre izatea oso preziatua baita, eraikuntza-negozio borobileko operazioen leku. Ondorioz, ohikoa bilakatu da bidaiari garaikideen hiriarekiko lehen kontaktua lurrazpiko zokoetan egitea.

Autobusak ez du trenez bidaiatzeak bezainbesteko *glamourrik* eta agian horregatik, autobus geltokien arkitektura-behera egin du hirietako adibide askotan. Donostiakoa izan daiteke kasurik lazgarrienetakoa. Haserre jarriko naiz: kalitate arkitektonikorik gabeko hondakin-espazio bat da eta geltoki batek eskatzen duen gutxienezkoa ere ez du betetzen. Geltokiak ez du egoteko lekurik, pasabide bat da korridore zabal baten gisara diseinatua. Nasara sartzeko zain egoteko espazio nahikorik ez dago, ez zutik egoteko ezta esertzeko ere. Behin nasara sartuta, autobusa hartzeko ilaran egoteko lekurik ez dagoenez, Iruñea eta Arrasaterako ilarak nahastu egiten dira: nasako kaosa oso ohikoa da. Geltokia jende eta maletaz beteriko gune bilakatzen da maiz, non eguneko beroa pilatzen den eta autobusen ihes-hodien aire kutsatuak ez duen aterabiderik. Garaje bat. Gizatasunik gabeko toki bat, XXI. mendeko gizarteak eskatzen dituen baldintza higienikorik gabea.

Donostia bisitatu duten turisten artean, asko Donostiako autobus geltokitik pasako ziren, aireporturako autobusa hartzeko sikiera. Ematen du gutxi pentsatu dela bisita klase honetan edo gure oroimen selektiboak txoko idilikoak bakarrik gordetzea espero da. Hiri baten dotorezia autobus geltokiaren arkitektura kalitateagatik neurtzea proposatzen dut, kalitate agiri gisa. ●



## Amiantoan suspentso

**URKO APAOLAZA AVILA**

**I**railarekin batera badator ikasturte berriaren hasiera eta milaka haur eta nerabe ikastetxeetarako bidea hartuko dute berriz ere, batzuk pozik, beste batzuk ez hainbeste, baina denek euren azterketak eta lezioak motxilan dituztela. Beste hainbeste espero zitekeen euskal administrazioaren partetik, baina ez dirudi ikasle finak izan direnik, ez behintzat gai zehatz bati dagokionez: amianto.

Kataluniako Generalitatak uda honetan hamazazpi ikastetxetan obrak egin ditu, eraikinetan oraindik dagoen amianto kentzeko. Amianto –edo asbestoa– isolatzaile bikaina da eta erruz erabili zen mota guztietako azpiegituretan 1960ko hamarkadatik gutxienez 1990eko amaierara arte –Espainiako Estatuan 2002 debekatu zuten bere erabilera eta Frantziako Estatuan 1997an–. Eraikuntza publikoetan ere horrela izan zen, tartean ikastetxe ugari.

Amianto denborekin degradatu egiten den material bat da: 30-40 urteren buruan hauskor bihurtzen da eta bere zuntzak hedatu egiten dira inguruan. Horrela, mesoteliomak, asbestosia eta biriketako minbiziak sortzeko arriskua areagotu egiten da. Horregatik da lehentasunezkoa amianto eraikinetatik kentzea, are gehiago eskoletatik. Katalunian Hezkuntza Departamentuak kalkulatu du gutxienez hango 271 ikastetxetan dagoela amianto, eta 11 milioi euro inbertituko ditu horiek kentzeko; asmoa da 2028an eskolarik ez egotea amiantoz kutsaturik Katalunian.

Eta Euskal Herrian? Duela urte batzuk jakin zen ikastetxetako arbeletan amianto egon zitekeela eta horietako batzuk erretiratzen aritu ziren. Hainbat herritan ere esku hartu izan da, pixkanaka-pixkanaka: Bilbon, Laudion, Donostiako Altza auzoan... ikastetxeetako sabaiak eta abar kendu dituzte. Baina ez dago hezkuntza zentroetan amiantoaren presentzia norainokoa den esaten duen datu zehatzik, eta ondorioz ezta hori kentzeko plan orokorrik ere.

2022an Espainiako Kongresuak onarturiko lege batek udalerrri guztiak derri-gortzen ditu amiantoaren errolda egitera. Aitzitik, legea onartu eta urbetera apenas gutxi batzuek zuten halakorik, eta gaur egun ere gutxiengoa dira. Mantso doa dena. Halako errolda bat egitea erabaki duen azkenetakoa Legazpiko Udala izan da, horretarako aurretiazko faseari ekin dio, amiantoaz kutsaturiko eraikinak identifikatzeko. Eusko Jaurlaritzak errolda horiek egiteko metodologia jarri du abian eta formazioa eskaintzen ari da udal teknikarien artean, apurka.

Apurka, poliki eta astiro ari da administrazioa. Baina denbora aurrera doa eta 30-40 urteko epemuga gainean dugu; gero beste hamarkada batzuk igaroko dira mineral kantzerijenoaren zuntzek beren lana egin arte. Orduan nor akordatuko da garaiz ez egindakoaz? Akaso gaur haur eta nerabe direnak bai. ●



# 47.000

pertsona baino gehiago hil ziren iaz Europan, beroaren ondorioz. Mundu mailan erregistratutako urterik beroena izan zen, eta Europako bigarren beroena, ISGlobalen arabera. 2100. urterako, aurreikusi dute beroak adinekoren heriotza hirukoiztu egingo duela Europan.

# %47

Energia-enpresa nagusiek biodibertsitateari eragindako kalteen %47 ezkututzen dute, EHUren ikerketa baten arabera. "Irudia zurrizko" estrategiak erabiltzen dituzte.

# 3

medikuetatik 2 falta dira Elizondoko osasun etxean. Egoera larrian dago osasun etxea eta aparteko ordu boluntarioekin betetzen ari dira medikurik gabeko zerbitzuak. Mediki bakarria dago 3.000 pertsonari arreta emateko.

*"Poloniako Gobernuaren mendeku moduko bat dirudi, Errusiatik kanpo bidaiatzea galarazteko"*

#### GONZALO BOYÉ

Pablo Gonzalez kazetariak Errusian jarraitzen du, Poloniako Gobernuak pasaporteak konfiskatu zizkion kazetariari eta "Poloniako autoritateen esperoan" daudela dio haren abokatuk Boyék.

**BERRIA (2024-08-23)**



**"ESPETXE POLITIKA ARRUNTA APLIKATZEA ESKATZEN DUGU, PRIBILEGIORIK, SALBUESPENIK, DISKRIMINAZIORIK GABE"**

#### SARE HERRITARRA

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzari egindako eskaeratako bat izan da, ikasturteaz egin duen balantzean.

**2024-08-20**

*"Entitate genozida bat eta bere askatasunarengatik borrokatzen ari den herri bat daude; ezin dira inolaz ere zapaltzailea eta zapaldua berdindu"*

Palestinarekin Elkartasuna plataformak deituta, bai Donostiako bai Bilboko jaietan presente izan dute genozidioa.

**2024-08-17**



## TEKNOLOGIA

## Eraginak kontrolatzen



DIANA FRANCO EGUREN

**G**izakiok harremanetan gaude gure artean eta bizi dugun ingurunearekin; egiten dugun guztiak eragina du, onerako zein txarrerako. Sortu dezakegun eragin negatiboa murrizteko norberaren balioak, kultura, harremanak eta aukera materialak erabakigarriak izaten dira.

Askotan pentsatu izan dut teknologia-ren neutraltasun faltan, hau da, teknologia sortzen dutenek eragin zehatz bat bilatzen dutela, euren mundutarkeriari lotua, zenbaitetan oso begi-bistakoa ez bada ere. Baina sortzailearen helburuetatik harago, erabiltzaileok ere beste zentzu bat eman diezaiokegu tresnari. Nire aitak, adibidez, plastikozko botiletan zulotxoak eginez baratzerako ureztagailuak sortzen ditu.

Telegram sortu zuenean, Pavel Durovek esan zuen pertsonen arteko komunikazioan askatasuna bilatzen zuela. Beharbada, erabiltzaileak minbera izan zitekeen informazioa partekatzearen eraginetatik aske mantentzeko aukera. Helburu hori lortzeko pribatutasuna beharrezkotzat zuen (pribatutasuna hirugarrenekin datuak partekatzeko orduan behintzat, Telegramek ez baitu berezkoa muturretik muturrerako babesa, horretarako txat sekretuak sortu behar dira). Baina Telegramen ere bada eragin kaltegarria sortzen duen edukirik: bortizkeria, modu askotariko esplotazioa, bazterkeria, gorrotoa... bultzatzen duena. Eta hor dago gatazka: erabilera modu batzuek izan dezaketen eragin negatiboak beste erabilera positibo guztien gainetik egon beharko luke? Europako Batasunak 2022. urtearen amaieran onartutako Zerbitzu Digitalen Legearen arabera, Interneteko plataforma handiak agintariekin eta Justiziarekin "krimenari eta delinkuentziari" aurre egiteko elkarlanean aritu beharko liratekete. Eta bide horretan, Frantziako agintariak diote Durov-ek ez duela ezer egin, horregatik atxilotu dute.

Telegram erabiltzeko arrazoi asko dago. Argi dagoena da eremu digitala oso kontrolagarria dela, jarduera guztiak arrastoa sortzen duelako. Eta Telegram moduko sistema zentralizatueta, arrasto horrek eman dezakeen informazioa kontrolatzea eragin handikoa da. ●

## NAZIOARTEA



## Telegram jo-puntuan Frantzian

AXIER LOPEZ

**T**elegrameko sortzaile eta kontseilari delegatu Pavel Durov larunbatean atxilotu dute Parisetik gertu dagoen aireportu batean bere jet pribatutik jaistean. 39 urte eta nazionalitate frantziarra eta errusiarrak ditu Durovek, eta Dubain bizi da azken urteotan. Iruzurra, drogetrafikoa, ziber-jazarpena, krimen antolatua edo terrorismoaren apologia bermatzea egotzi dizkiote. AP agintziaren arabera, Frantziako fiskaltzako iturriak aipatuta, Telegramek ez ditu "bere plataforman antolatuta dauden talde kriminalak" baztertzen, eta ez du kolaboratzen delituak ikertzen dituzten agintariekin.

"Telegrameko CEOak ez du ezer ezkutatzeko, eta sarri bidaiatzen du Europan barrena. Zentzugabea da plataforma bat edo haren jabea plataforma horretan beste batzuek egindako gehiegikerien erantzule izatea" adierazi du Telegramek. "Mundu osoan ia mila milioi erabiltzailek erabiltzen dutela Telegram komunikaziorako eta informaziorako bitarteko gisa", gaineratu du. Konpainiak Europar Batasunaren arauak betetzen dituela dio, eta azpimarratu du mezuak seguruak direla "enkriptatuta daudelako", eta ez duela erabiltzaileei buruzko "informaziorik jasotzen, ezta ematen ere".

Telegramek Dubain du egoitza nagusia. 2013an sortu zuten Pavel Durovek eta bere anaia Nicolaik. Pavel Durovek, Zuckberg errusiarra ezizenaz ezagunak eta Interneteko konfidentzialtasunaren defendatzaile gisa aurkeztuak, Errusiatik alde egin zuen 2014an, berak sortutako VK sare sozialean Errusiako oposizio politikoak zeuzkan komunitateak ixteko eskaki-

zunak betetzeari uko egin ostean. *Forbes* aldizkariaren arabera, 13.000 milioi eurotik gorako dirutza du Durovek.


Whatsappen berehalako komunikaziorako plataforma alternatibo nagusi bihurtu da Telegram azken urteotan, are gehiago Mark Zuckerbergen multinazionalak jaso dituen salaketa eta kondena ugarien ostean, gardentasun eza eta datu pertsonalen erabilera okerragatik. Adibidez, 2023ko maiatzean Metari (Whatsapp, Facebook eta Instagramen jabea, besteak beste) 1.200 milioi euroko isuna jarri zion Datuak Babesteko Irlandako Batzordeak pribatutasuna urratzeagatik. Datu pertsonalen ustiapen mertzenarioagatik multinazional estatubatuarren aurka agertu da Telegram, eta bere burua nabarmentzeko "erabiltzaileen pribatutasunarekiko errespetua" azpimarratzen du, nahiz eta sistema zentralizatueta izan eta ez dituen defektuz bere mezuak muturretik-muturrera zifratzen. Telegram hainbatetan adierazi du ez duela inoiz bere erabiltzaileei buruzko informaziorik emango, "marra gorriak" zeharkatu ezean. Telegrameko agintariak, noski, ezartzen dute lerro horien kolorea.

Telegram hainbat tira-bira izan ditu justiziarekin azken urteotan. Azkenetako bat martxoan izan zen, Espainiako Estatuan. Santiago Pedraz Auzitegi Nazionaleko epaileak Telegram guztiz blokeatzea eskatu zuen, Mediaset, Atresmedia eta Movistar Plus enpresek hala eskatuta, Telegrameko "kanal batzuetan egile eskubi-deek babestutako edukia partekatzen zelako". Azkenean, zentsura saiakera erretiratu zuen epaileak. ●

# Inoiz ikusi gabeko suntsiketa

Israelek urriaz geroztik jaurti dituen bomba tona kopurua handiagoa da Bigarren Mundu Gerrak iraun bitartean Londres, Dresden eta Hiroshiman jaurtitako guztiak baino.

 ITURRIA: ITIDAL



## Osasuna

Tanpoeik metalak dituztela frogatu dute, tartean beruna eta artsenikoa. Aurkitutako metal batzuk toxikoak dira, baina AEBetako, Europako eta Erresuma Batuko legediek ez dute horri buruzko araudirik. Elhuyarrek argitaratu du albistea.

## Heriotza

Jon Irazabal Agirre hil da, 30 urtez Durangoko Azokaren zuzendaria izandakoa. 63 urteko iurretarra Gerediaga Elkarteko kudeatzailea izan zen 1982tik 2018ra. Durangaldeko historia ikertu eta zabaltzeko erreferentzia nagusietako bat izan zen.



# BALUTXISTANGO LABORARIEK EREDU EKOLOGIKOA DUTE MUTURREKO EGURALDIEI AURRE EGITEKO SOLUZIO

Munduko klima gogorrenetakoa du Balutxistanek: basamortuko klimaren muturreko bero eta lehorreak, eta Arabiako itsasotik ekarritako montzoiaren eurite irregularrak, urte batzuetan eskasak eta bertzeetan uholdeak eragiteko modukoak. Hala eta guztiz ere, bertan laborantza badago, eta belaunaldi gazte gero eta gehiagok lurra lantzeko eta elikatzeko bide organikoa hautatzen du. Luzaz zapaldiriko eskualde hartan, menpekotasunak gainditzea da haien xede nagusia.

 NICOLAS GOÑI

**B**alutxistango klima basamortu berokoa da, udaberrian eta udan ohikoak dira bertan 45 gradutik gorako egunak. Turbaten, Balutxistango bigarren hiri handienean, munduan inoizko laugarren tenperatura beroena neurtu zen 2017ko maiatzean: 54 gradu. Baina batezbertzean Pakistango hiri beroena Sibi da, eta hura ere Balutxistan eskualdean dago. Himalaiako mendiez aparte, Pakistango negu hotzenak dituen hiria Balutxistan eskualdeko hiriburua da: Quetta. Bertan neguan -10 graduko gauak ohikoak dira. Eta Pakistango toki lehorrena ere bai, Nok Kundi hiria, Balutxistanen da. Azalpen gehiagorik ez da behar, aise irudikatzen da Balutxistango bazterren kolore nagusia ez dela berdea, eta zuhaitz eta goroldioa baino maizago aireko gandua ikusten dutela.

Basamortuko baldintza horiek aski gogorak ez balira, azken bi urteetan montzoi sasoi bereziki gogorra izan zen Balutxistanen, euriteek lehorrea arindu baino uholde historikoak eragin zituztelarik. 2022ko uholdeek 336 pertsona hil zituzten bertan. Hainbat etxetan ura sartu eta erabilezin bilakatu zituen, horren ondorioz 426.897 etxe andeatuak edo guziz suntsituak izan ziren. 1.230 km<sup>2</sup>-ko (ia Nafarroa Beherearen azalera) sorotan uzta galdu ziren, eta milioi erdi inguru abere hil ziren, udaberrian beroak eta gero montzoiaren urak harrapaturik. Pakistango meteorologia zerbitzuen arabera, Balutxistanen 2022ko abuztuan izandako eu-

ria ohiturazko euri mailaren ia zazpikoitza zen. Honen ondorioz milaka errefuxiatu izan ziren, baldintza bereziki prekariotan, janaria eta botikak eskas zituztelarik. Pakistango eskualde kaltetuena izan zen Balutxistan, 2022ko uholdeetan Pakistanen suntsitu ziren etxeen %60 eta kalteturiko eskolen hiru laurdenak eskualde hartan ziren –bertako populazioa Pakistangoaren %5.5 delarik–.

Uholde historiko horietatik berrosatzeko astirik ez, 2023ko udaberrian berriro abiatu ziren uholdeak, uztaile-ra arte, bertze 1.100 pertsona hilez eta ehundaka etxe kaltetuz. Ia 750.000 pertsona errefuxiatu bilakatu ziren, etxerik, eskolarik eta arreta medikalik gabe, eta aurreko urtean bezala, estatuaren kudeaketa eskasak eta azpiegitura desegokiek kalteak larritu zituzten.

## MUTURREKO KLIMARAKO LABORANTZA

Halako baldintzetan pentsaezina lirudike laborantzarik egotea, kiskaltzen edo urperatzen ez den landarerik egotea. Halere laborantza egon badago, nahiz eta lur landua lurraldearen %5,9 bakarrik den, ur baliabideak ez baitu gehiagorako ematen, orain arteko baldintzetan bederen. Baina egoera pixkanaka aldatzen ari da. Luzaz Balutxistanen, “garpent bidean” diren bertze hainbat tokitan bezala, “iraultza berdeak” markatu zuen bidea: barietate berriak eta ongarri sintetikoak omen ziren konponbidea.

Baldintza optimotan, barietate berriek ongarri sintetikoek esker gehiago ekoiztu ohi dute, eta lan zama arindu. Horregatik ere piztu zuten “iraultza” horiek esperantza, gurean arto hibridoa eta ongarri sintetikoak zabaltzen hasi zirenean bezala. Kontua da alde batetik, baldintza optimizatuak gutitan ematen direla Balutxistanen bezalako muturreko eguraldi bero eta lehorretan, bertzelatik, lurzoruen zati organikoa desagertzen hasten bada (ongarri sintetikoetan gehiegi oinarrituz gero) baldintza horiek ere gero eta gutiago ematen direla. Horri gehitu klima aldaketaren ondoriozko ezohiko bero uhinak edota euriteak, eta nekez mantenduko da etekina. Bitartean, ekoizkinen prezio globalak behera joaten badira baina haziena eta ongarri sintetikoena gora, laborari askorentzat hasierako esperantzaren ordez zorrak eta etorkizunari buruzko kezkek dira zabaltzen.

## TOKIKO BALIABIDEKIN, BIDE EMANKORRAGOA

Horrelako testuinguruan, eraginkortasun optimizatu baina hobea da sendotasunaren lehenestea. Hau da, baldintza idealetatik urruntzean ere beren etekina segituan galduko ez duten barietateak lehenestea: askotan tokiko barietateak dira, sasoi onetan mota berrien etekinak gainditzen ez dituztenak, baina sasoi txarretan edota lur ez hain emankorretan etekin egokia emanen dituztenak.



PIXNIO CCO PUBLIC DOMAIN

**ALDAKETA** Balutxistango bi belaunalditako laborariak, gari soro baten aurrean. Bertako gazte gero eta gehiagok laborantza organikoaren aldeko apustua egiten du, besteak beste, zorrak saihesteko.

Horrez gain, muturreko eguraldian bere egitura deseginen ez zaion eta ura hobeki atxikiko duen lurzorua garatzea eta zaintzea ere komeni da.

Azken horretarako, IDSP Garapen Ikerketa eta Praktikarako Erakundea fundazioak saiakera pilotu bat bultzatu zuen 2022an, Balutxistango bortz barrutiko 25 laborari "txikirekin", hau da, gehienez bi hektarea lantzen zituztenekin. Hasieran bakoitzari 38.000 errupia (123 euro) laguntza eman zieten tokiko haziak erosi ahal izateko. Lehen emaitzak baikorrak izan zirela eta, 2023ko otsailean Karachiko Rotary Club benefizentziak bertze 200 laborari eguzki-lore eta artatxiki haziak hornitu zizkieten. IDSPk bere aldetik ongarri organikoak hornitzen zituen, Sohbatpur eta Sibi hirietan irekitako ongarri, mi-

kronutriente eta bio-bizkorgarri fabriketatik.

Gaur egun 300 dira ekimen horretan parte hartzen duten laborariak, 566 hektareatan, batezbertzekoan hektareako 23,6 kintal lortuz -klima hartan, eta ur baliabide murriztuarekin, ez da gauza txikia-. Horietariko batek, 21 urtekoak, 95.000 errupia mozkina lortu zuen 12.000 inbertitu ondoren, eta bere aukideak -aurreko belaunaldikoak- bikoitza baino gehiago gastatu zuen ongarriri sintetikoetan, emaitzarekin ordura arte pilotutako zorra arintzen lortu gabe. IDSPko adituen arabera, bi hektareako fosfato diamonikoa eta urea beharrek 175.000 eta 200.000 errupia arteko kostua dute, aldiz, 22.000 errupia nahikoa izan ohi dira azalera bera modu organikoan ongarrizteko. Halako diferentzietan

litekeena da bertako laborari gazte gehiago eredu organikora pasatzea, bertako lurzoruen onerako ere.

Pakistan mailan, soroen materia organikoaren heina %1.25 ingurukoa da, eta maila horren azpian daude Balutxistango gehienak. Maila hain apal horietan materia organikoaren edukia bikoizteak ez du asko kostatzen eta onura asko dakarzkie. Irabazia etekin hutsa baino zabalagoa da: laborarien finantza oreka -ongarriak merkeagoak eta ekoizkin organikoaren prezioak pixka bat goragoak izanik-, landa eremuan lanpostuen sortzea -azalera txikiko laborariak edo ongarri organiko fabriketako langileak-, lurzoruen gaitasun handiagoa ura xurgatzeko, eta laborantzaren karbono aztarna apalagoa -ahalegin hori egiteari dagokionez balutxeak lehen lerrotik urrun badira ere...-.

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Olatz Mercader

KONTATZEAK MEREZI DU



## EDERRA LITZATEKE AHT FINANTZATZEA EITB MARATOIAREKIN ETA MINBIZIAREN IKERKUNTZA ZERGEKIN



Hil arte bizirik sentitzearen beharraz ari da Olatz Mercader. Gaixorik egon izan delako bere bertsio gutxitua hurbilegi ikusi duenak badaki zein garrantzitsuak diren konpromisoa, grina eta desioa.

 ONINTZA ENBEITA  IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA

### **Broma bat dirudi, baina minbiziari esker bihurtu zara ezagun.**

Hau guztia dator Julene Illarramendi sarteraren ama bularreko minbizi metastasikoaren ondorioz hil zelako, eta irudituz zitzaien minbiziaren inguruan tabu eta itzal asko zeudela. Orduan, Miren Cuerdorekin batera elkarte bat jarri zuen martxan. Ni burusoil nengoenean zapi solidarioen proiektua atera zuten, eta esan zidaten ea atera nahi nuen zapiarekin burusoil. Zarauzko torreoian elkartu ginen eta han azaldu ziren beraiek biak Iratxe Etxeandia argazkilaria, makilatzailea... Ez ninduten begiratzen minbizia zeukan Olatz gaixoa bezala, begiratzen zidaten pertsona bati bezala. Eta pentsatu nuen, nik zera horren parte izan nahi nuela.

### **Gerora, izan inurri elkarteak antolatutako bertso saioetan ikusi**

### **zaitugu gai-jartzaile, eta oso gai dramatikoak aurkeztu dizkiguzu, baina beti jarri gaituzu gu eta publikoa barreka.**

Inurri beti esaten dugu komedia dela drama gehi denbora. Guk bizi izan duguna drama bat da, baina barre egiten dugu aurretik negar asko eginda gaudelako, eta umorea gutako askorentzat bizirik irauteko tresna izan delako.

### **Minbiziarekiko ikuspegia aldatu diguzue askori.**

Gure gizartean gauza negatibo guztiak tabuak dira: heriotza tabua da, gaixotasuna tabua da... guk esan duguna da hau bizitzaren parte bat gehiago dela. Minbiziaren errelatoa sendatu direnekin eraiki da, baina zer gertatzen da metastasia daukan eta ume biren ama den 35 urteko emakumearekin? Hura bizirik dago, baina gure

gizarteak ez du ezer jakin nahi. Ez da polita, ez da larrosa: sekulako "marroia" da. Baina "marroi" horri heldu egin behar diogu. Minbizia dugunoi esaten zaigu moztarrotu zaitez pertsona osasuntsuz, jarri guapa eta izan zaitez lehen zina, baina gaixorik dauden pertsona horiek izateko zilegitasuna daukate eta bizirik dauden bitartean letra guztiekin bizitzeko aukera izan behar dute.

### **Zuen leloetako bat da, hain zuzen, "hil arte bizi".**

Nik aitortzen dut ez naizela sekula droga kimioterapia hartzen hasi arte. Ez dakit haren eraginez edo, baina buru argitasun tarte bat izan nuen: "Aizue, erratuta gaude, txerri gantxoarekin goaz beti eta hau ez da bizitza, hau irautea da". Drogak kendu zizkidaten, eta bueltatu naiz egunerokora, baina kapitalismoaren logikak



# Olatz Mercader

ZARAUTZ, 1976



Abokatua da ikasketaz eta udal aholkularia lanbidez. Minbiziaren gaineko tabuak hausteagatik eta Patxi Ezkiagarengandik jasotako sexu-abusuak salatzeagatik egin da ezagun. Bizitako dramez barre egiteko eta eginarazteko gaida, baina hitzek eraldaketarako duten indarra ahaztu gabe; ez du kontatzeagatik kontaktzen.

aisialdian ere produzitzera eramaten gaitu: Zegama-Aizkorri, triatlaiak... eta ez. Egon. Egon eta izan.

## **Badirudi kolpe bat behar dugula irauten baino ez gaudela konturatzeko, baina kolpea eta gero irautera itzultzen gara?**

Bai eta ez. Ez zara aurreko planora bueltatzen. Norbere buruarekin konektatzeko halako gaixotasun bat pasatu beharra gogorra da. Jendeak zure burua zaintzeko zilegitasuna eman diezazun hara noraino iritsi behar duzun. Eta zuk pentsatzen duzu "hau gaixorik egon gabe ere ez legoke gaizki".

Zenbateraino da garrantzitsua minbiziaren inguruko hizkuntza aldatzea? Hizkuntza belikoak nazka ematen du. Minbizia nire zelulak dira: gaiztotu egin diren nire zelulak. Zeren kontra egin behar dut, nire buruaren kontra? Gainera, horrek zer esan nahi du: hil zaizkigun ahizpa guztiak porrot egin dutela? Ea joaten garen epika zeken horretatik lirika polit batera.

## **Zuen kasuan lirikara ez dakit, baina pertsonaletik kolektiborako bidea egin duzue.**

Minbizia duzunean kulpa eta beldurra sentitzen dituzu. Medikuntzak oso harreman onak ditu minbizia duten zelumekin, baina minbizia daukagun emakumeekin ez hainbeste. Denok behar dugu ulertu eta besarkatuko gaituen kolektibo bat. Hautu konplikatuak egin behar dira: bularra kendu, berreraiki edo ez, tratamendua hartu, tratamenduari uko egin... eta espazio seguru bat izatea horretaz guztiaz askatasunez eta epairik gabe hitz egiteko beharrezkoa da. Gero noski, gaixook osasun sistemaren gabeziak pairatzen ditugu. Ez langileen aldetik, ze alde horretatik tratatu ona jasotzen dugu normalean, baina entzuten duzu Amancio Ortegak dohaintza bat egin duela, eta protoiterapiarako makina batean 26 milioi euro inbertituko direla, eta pentsatzen duzu agian guk nahiago genukeela zoru pelbikoko fisioa, edo sexologoa, edo psiko-onkologoa edo nutrizionista. Ederra izango litzateke Abiadura Handiko Trena finantzatzea EITB maratoiarekin eta minbiziaren ikerkuntza eta gaixoentzako baliabideak gure zergekin. Hori da inurrion utopia.

## **Gizartean, hala ere, minbiziak hitz egiten dugunean ez gara**

## **sexologoaz, nutrizionistaz, fisioaz... ari.**

Diskurtso kolektiboan minbizia daukan pertsona burusoil dago, egun guztia botaka. Halako momentuak badira, baina jendeak minbiziarekin oposaketak atera ditu, edo joan da Stockholmera Erasmusen dagoen bere alaba bisitatzera. Eta hori ere minbizia da. Tratamenduak ez dira bukatzen kimio edo erradioterapiarekin. Gerora etortzen dira immunoterapiak, hormonoterapiak... eta albo ondorioak latzak dira. Ni neu hiru urte eta erdi eta gero, tratamendua uztera noa. Erabaki zaila izan da, nik ez dut berritri gaixotu nahi, baina tratamenduak depresioa eragiten du, insomnia, desio falta... eta nik ez dut nire bertsio gutxitua izan nahi.

## **Ordea, bizirik egoteko aukera izanda, zertarako nahi duzu desioa?**

Nik nire grina eta gose guztiarekin jarraitu nahi dut bizirik. Kontua da inork ez dizula konbertsazio hori planteatzen, eta zuk adorea behar duzu profesional bati hori azaltzeko, eta profesional horrek mari zikin bat izango bazina bezala begiratzen zaitu, eta esaten dizu ea probatu duzun aluan pote urdineko Nivea botatzea. Protoiterapia ez, arren: finantzatu sexologoak edo formatu pertsona hauek erantzun egokiak emateko gai izan daitezten. Izan ere, ni pribilegiatua naiz eta tratamendu asko finantzatu ahal izan ditut, baina zer gertatzen da baliabiderik ez duten emakumeekin?

## **Entzuten zaitudanero pentsatzen dut zein ahaldunduta zauden.**

Ez, ez. Tote bag famatu batek dioen moduan: hemen denok gure traumak eta "mobidak" dauzkagu.

## **Hitz egingo dugu Patxi Ezkiagaz?**

Bai.

## **Indartsuak ematen duzuen edo dugun askori ere gertatu egin zaigu.**

*Not all men* (gizon guztiok ez) entzuten dugu askotan, baina azken batean, denak dira gizon, eta ondorioz, emakume gehienoi gertatzen zaigu. Bestalde, irratan hitz egin nuen haserre nengoelako. Beti atera behar dugu guk intimoak diren gaiei buruz gorputza jartzera, baina fokua gizon horri hogeita hamar urtetan sistematikoki emakumei eraso egitea ahalbideratu dion sisteman jarri behar genuke. Zer gerta-



tzen da gizonak eta boterea elkartzen direnean? Zer gertatzen da euskal kulturari?

**Iruditzen al zaizu euskal kulturaren mundua isilik gelditu dela?**  
Erabat.

**Jende askori entzun diot ez dela erabat harritu. Orduan zergatik ez da ezer gertatu hainbeste urtetan?**

Italiako mafian zegoen moduko *omertá* bat dago, baina lotsak, orphidalak eta tran- kimazinak bandoz aldatu behar dira. Erasotzaileek jakin behar lukete emakumeek gure artean hitz egiten dugula eta sekulako disko gogorra daukagula.

**Urte hauetan guztietan isilik egon zara? Ala izan duzu kontatzeko espazio segururik?**

Emakume asko zeuden adinagatik inozentzian eta gizon horrek anbibalentzia horrekin jokatzeko zuten. Niri bere bulegora joateko deitu zidan, eta zakila kanpoan zuela bere altzoan esertzeko eskatu. Nik ordurako bane- kien zer bilatzen zuten gizon hark, 16 urte neuzkan, eta ez ninduen nahastu. Ondo aukeratu- zen zituen biktimak, beti gi- nin neska zaugarriak. Gure ama depresio klinikoan zegoen, eta nik pentsatzen nuen hura kontatzen ban- ion akabatu egingo nuela. Ordea, nire bikotekideak esa- ten zidan amari esateko. Gure amak erantzun zidan inork ez nin- duela sinistuko tipo hori Jainkoa zelako, gaizki pasatuko nuela, eskolatik botako nindutela eta, azken batean, ez zitzaidala ia ezer gertatu. Publikoki isildu izanaren damua badut. Nire isiltasunak bat baino gehiago bidaliko zituen kabroi horren eskuetara. Hala ere, lagunekin, bikoteki- dearekin eta alabekin hitz egin izan dut. Orain poza ematen dit jendeak behingoz gizon hori zein zen jakiteak.

**Badago momentu bat erasoia jasan duenak bere buruari onartu behar**



“**Egin ezazu borroka ahal baduzu, eta behar baduzu, eta har ezazu atsedean gero berriro ere borrokara abiatzeko”**

**diona erasoia jasan duela.**

Hori oso momentu gogorra da. Urteak joan eta etorri, heldutasuna daukazu, te- rapiak egin dituzu, zure bi- zitzia aldatu egin da, baina egoera askok eramaten zai- tuzte egoera hartara. Gizarte bezala ez daukagu artikulatuta zeintzuk diren horren ondorioak.

**Zure amaren hitzak orokorrak dira: sarketarik ez badago, ez da hainbesterako.**

Emakumeei espazio seguruak eskaini behar zaizkie hitz egiteko. Inork ez du esan nahi eraso egin dutela, baina hitz egiten ez badugu ez dugu erasoak iden- tifikatzen jakingo eta identifikatzen ez baditugu, ez dugu jakingo biktimak zer behar duen. Eraso sexualak jasandako biktima asko saiatzeko dira beren buruaz beste egiten, anorexia dute, depresioa...

eta ez dute aurkitzen espazi- orik epairik gabe hitz egi- teko.

**Emakume asko atera dira Patxi Ezkiagaren salaketan harira. Zuen artean artikulatu egin zarete?**

Bai. Sortu diren konexioak sendagarriak dira, nahiz eta barkamen eske azalekoek eta isiltasunak min handia eman.

**Gogorrena hori al da: isiltasuna?**

Ezikusia sentitzen zara. Mezu bat bidali nuen La Sallera, eta erantzuna es- tereotipatua izan zen: “Es- kerrik asko Jaurlaritzako arreta zerbitzuarekin harre- manetan jartzeagatik”, esan- go balidate bezala. Ez dira gai egoera hau artatzeko. Li- tekeena da bihotzez aritzea, baina ez da posible bere bu- rua biluztu duen emakume bati erantzun estereotipatua ematea.

**Zer beharko litzateke?**

Lehenengo eta behin sines- garritasuna. Mezuak jasoz- tzen ditugu frogarik ez du- gula esanez, eta hara, nik ez dut frogarik behar sinisteko.

Bigarrenik, aztertu egin behar genuke ea ustezko gizon bikain hauek babesten dituzten mekanismo ikusezinak zeintzuk diren. Eta hirugarrenik, baliabide espe- zializatuak eta ekonomikoak behar ditu- gu ikuspegi feministarekin. Ustez aditua den batek galdetu zidan ea nire kasuan penetrazioa egon zen. Ez dakit pertsona hori gai den ikusteko galdera horren de- segokitasuna. Jendeak dirutza xahutu du terapietan. Emakume batek esan zidan 12 urtetik 22ra ez zela barre egiteko gai izan. Nola erreparatzen da hori? Erre- parazioak pertsonala eta partikularra izan behar du, eta horretarako biktimak entzuna dela sentitu behar du, bere behar- rakk beteko direla.

**Eguno prozesuek biktima bere burua zalantzan jartzera eramaten dute?**

Jaio ginenerako kulpa eta belarritakoak instalatu zizkiguten, eta egitura guztiak

ospea daukan gizon hori babestera badoaz, zein atrebituko da! Horregatik behar ditugu baldintza gabe sinisten gaituzten ahizpak, eta nebaren bat badago ere ondo.

### Nik sinisten dizuet.

Salaketa faltsuak esaten da, baina zenbat dauden egiazkoak izanda isilik daudenak.

### Patxi Ezkiagaren erasoaren ondorioz literaturarako zaletasuna galdu zenuen zuk, Olatz.

Euskararekiko nazka sentitzera iritsi nintzen, duela gutxira arte ez dut euskaraz irakurri eta euskal kultura arbi soro bat iruditzen zitzaidan. Bertsolaritzak ere kristoren nazka ematen zidan zuek ezagutu arte.

### Pozten naiz, bada.

Emakume askoren lan zoragarriri esker adiskidetzen ari naiz euskal kulturarekin.

### Esandako guztia esanda ere, kontatzeak merezi du?

Audrey Lordek esaten zuen: "Nire isiltasunak ez nau ni salbatu, eta zure isiltasunak ez zaitu zu salbatuko". Hitz egiten dugun aldiro biktima izatetik eraldaketa baten agente izatera pasa gaitezke. Indar hori gaindiezina da.

### Minbiziarekin egin zara ezagun, Patxi Ezkiagarekin ere atera zara...

Nire alabek esaten didate oso bizitza *randoma* daukagula, baina euskaldunak orokorrean paraplegiko emozionalak gabela eta guk kontatu egiten dugula gure bizitza.



### Bizitza *randoma* diozula, zu berez abokatua zara.

Bai, hirigintza arloan lan egiten dut.

### Paraplegia emozionaletik badu zerbait zure lanbideak...

Paraplegiatik baino gehiago psikopatiatik.

### Eta egungo hirigintza ereduak aldatu daitezke?

XX. mendeko hirigintza autoentzatzat errepideak eta eraikitzeke partzelak izan da. Zakildun gizon zuri, hetero eta dirudunek egin dute dena, pentsatuz, guztiok daukagula kotxe bat eta gure zaintzaz arduratuko den norbait. Beste begirada batzuk iritsi ahala, gauzak aldatzen hasi dira. Zaintza benetan praktikan jarri ahal izateko, espazioak sortu behar ditu aukerak. Herriak diseinatu behar dira pertsonen beharrei erantzuteko, eta gure beharrak ez dira bakarrik esnatu, lanera joan eta etxera etorri.

### Zaintza eta hirigintza elkarrengandik urruti daude gehienontzat.

Hala pentsatu direlako. Gaur egun, ordea, zaintza ahalbidetzen duen hirigintza egiten ez badugu, hirigintza kaxkarra eta zaharkitua egiten ari gara. Aldi berean, badakigu kapitalismoak negozioa ikusten badu haginka egingo diola zaintzari; beraz, zaintza kolektibizatu eta lehen lerroan jarri bai, baina erne.

### Ikusi zaitugun esparru guztietan dituzu diskurtsoa eta iparra argi. Dena da

#### borroka eremu?

Batzuetan kristoren indarra daukazu, eta besteetan ez. Jendeak esaten dizu "atera zure babes eremutik", baina nik, tarteka, ikusten dut babes eremu bat eta bertara salto egiten dut. Beraz, egin ezazu borroka ahal baduzu, eta behar baduzu, eta har ezazu atsedeen gero berriro ere borrokara abiatzeko. Nik bizitza ez dut ulertzen konprometitzen ez bagara. ●

## Audio eta bideoen transkripzio eta azpтитuluak

6 hizkuntza: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa

aditu.eus

Automatikoki eta minutu gutxian Editatzeko eta itzultzeko aukera



aditu  
elhuyar





## (Des)politizazioaz

**A**zken aldian politizazioa eta despolitizazioa aztertzeko aukera izan dugu, arreta gazteen kasuan bereziki jarrita. Hala ere, gazteak aztergai dituzten ikerlan soziologikoen ondorio gehienak beste adin taldeetarako ere aplikagarriak izan ohi dira, intentsitate desberdinez bada ere. Batzuetan etorkizuneko joerak indar biziagoz nabaritzen dira gazteen artean, beste batzuetan gai berriak mahai gaineratzen dira adin talde hori aztertzerakoan, eta abar.

Adinaren Soziologiak azpimarratzen digun bezala, gaztaroa –eta berdin gertatzen da gainontzeko adin taldeekin– muga zurrinak dituen kontzeptu biologikoa baino, mugatzen eta zehazten batere erraza ez den eremua dugu, gizartearen barruan soilik uler daitekeena. Zein urteren artean da pertsona bat gaztea? Zein ezaugarri lotu behar zaizkio gaztaroari? Bada, galdera horiei eta antzekoei emandako erantzunak desberdinak izango dira garaiaren arabera, gaztaroari buruzko ulerkera soziala historian zehar aldatzen joan delako, eta modu berean, erantzunak lurraldearen edota ikuspegi ideologikoaren arabera ere aldatuko dira.

Gaztaroa zehaztea erraza ez bada, politizazio eta despolitizazio prozesuak ekuazioan sartuta, zirrikitzu betetako eremua agertzen zaigu. Hemen ere, gizarte ikerketa gehientsuenetan bezala, gizartean nagusi diren ikuspegiak, edo zentzu komuna deitzen dena, alboratzea

Baliabide materialak  
eta kulturalak oinarri  
oinarrizkoak dira  
politizatu ahal izateko:  
politikan parte  
hartzeko eta politikaz  
pentsatzeko astia  
izatea, esaterako

ezinbestekoa da. Izan ere, jendartean nagusi den politikaren ulerkera, zeinaren arabera politika batik bat instituzioei, alderdiei eta hauteskunderi lotutako zerbaitei, zabaldu beharra badago, politizazioa ulertzen saiatu nahi badugu. Hori politikaren parte bat da, garrantzitsua, baina ikuspegi zabalago bat ezinbestekoa da, batez ere dinamika eta joera berriak ulertu nahi badira. Kolektibotasunari ekarpen bat egin nahi dioten ekimenak, beraz, kontuan hartu behar dira, bere zaballean.

(Des)politizazio dinamika berriak ulertzeko indibidualizazioa aipatu beharra dago, gizartean eragiten duen joera zentral gisa. Azalpen estrukturalak pisa galduta, norbera bilakatzen da bere egoeraren erantzule. Ni-a bakar bakarrik



**IKER IRAOLA ARRETXE**  
SOZIOLOGOA ETA EHU-KO  
IRAKASLEA

dago, beraz, zorionaren, arrakastaren, laisaitasunaren, diruaren edo dena delakoa- ren bila. Alde horretatik begiratuta, beraz, indibidualizazioa despolitizazioaren oinarri nagusia eta are bultzatzailea ere bada, politikak ekintza kolektiboa edo, gutxienez, kolektibotasunaren erreferentzia behar duen heinean. Baina, aldi berean, indibidualizazio testuinguru horrek badu beste aldea, eta mikropolitika ere agertzen zaigu ekintza politiko berri eta nolabait arrakastatsu gisa: Ni-tik abiatzen diren ekimenak, egunerokotasunean garatzen direnak, asmo politikoak dituztenak. Ekintzok egitura politikoeekin –alderdiekin, mugimendu sozialekin– duten harremana, eta lortzen duten eragina, gako inportanteak dira.


Indibidualizazio prozesuaz gain, gizabanakoen –ez soilik gazteen– politizazioan eragiten duen gako nagusia politikarako baliabideak izatea da. Baliabide materialak eta kulturalak oinarri oinarritzkoak dira politizatu ahal izateko: politikan parte hartzeko eta politikaz pentsatzeko astia izateko, politikotasuna garrantzitsua den giro komunitario batean hezteko izateraino, haurtzaroen, ikastetxeen, auzoan edo herrian, eta abar.

Gizartean despolitizazio prozesu baten aurrean gaude orduan? Bada, politika tradizionalaren krisia berez ez da politikaren krisia, Gu-a baino Ni-a gailentzen den jendarte batean politikaren egitekoa zailtzen den arren. ●

# Askatasunaren tresna



ANE ABLANEDO LARRION  
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**D**enok dakigu *askatasuna* kontzeptu zaila dela, ertz askotarikoa, hitzez definitzen zaila. Maiz mugagabetasunarekin definitu ohi dugu, baldintzamendurik gabe erabaki ahal izatearekin, ondorioarik ez edukitzearekin, edota ekintzen ardurarik hartu behar ez izatearekin. Baina ez denez existitzen mugarik gabeko ezer, elkar baldintzatzan ez duen harremanik, ondorioarik ez dakarren ekintzarik, edo ekintzen ardurarik gabeko ongizate jendarterik, libertatea zer da, ezinezko zerbait? Eta hala izanda, beste norbaitek beharko gaituela gidatu eta bideratu? Ondorio arriskutsua.

Heziketa libreaz aritu beharrak gai honen inguruko hausnarketa luzea eginarazi dit, zehaztu egin behar delako non ote dagoen modu askean edo ez askean haztearen arteko benetako ezberdintasuna, gakoa. Erantzunen xerka, eta filosofia, psikologia, politika eta soziologiari "galdetuta", hauxe da askatasunaz orain nire buruan egiten dudana irudia: askatasuna, *izan* ahal izatea da.

Horrela planteatzeak begirada beste toki batean jartzeko bederen balio duela uste dut, "mugak bai, mugak ez", "ondorioak bai, ondorioak ez" ohiko galderetatik at, *izateko* ume batek behar duen hori elikatze ahaleginarekin jartzeko indarra.

Haur batek jolas librea behar duela jakin, adibidez, eta horretarako nahikoa denbora, espazioa eta modua ote dituen galdetzea geure buruari. Nahiz eta ezin izango duen, jakina, edozein unetan edo edozein espaziotan jolastu, ez edozein modutan, bederen. Behar duena ematen diogu, baina muga (hots, forma) bat emanda. Adibidez.

Ez zait gustatzen askatasunari ematen zaion zentzu utopikoegia, eta izaera erreala edo utilitarioa eman nahian-edo, *askatasunaren tresnaren* ideia asmatu nuen garai batean, ikastaroetara zetorkidan jendeari opari emateko, egoki erabiltzen ikasiz gero beti poltsikoan eraman beharreko ezinbesteko gailu gisa.

Tresnak bi kable ditu. Bata geure buruarekin konektatu behar dugu, zer nahi-behar-desio dugun jakiteko, eta bestea kanpoaldearekin, errealitate konkretu hori nolakoa den ezagutzeko. Askatasunaren formula litzateke, nahi edo behar dugun hori egitea, errealitate konkretu batek duen formaren eta dituen mugen barruan, egiten dugunak ekarriko digun ondorioaren jakitun, eragin dezakegun kaltearen arduradun bezala, erreparazioa egiteko prest.

Errealitatearen mugak onartu daitezke, errealitate horrek daukan forma

edo izaeraren zentzuan, eta nire nahia horri egokitu. Baina errealitatea moldatu ere egin daiteke, nik behar dudana hori egingarria izan dadin. Gero, noski, gaitu eta apurtu beharreko mugak daude, pertsonon beharren kontrakoak direlako, besterik gabe. Bai, iraultzaz ari naiz, eta eskubideen defentsa zilegi. Errealitatearekiko kableak zapalkuntzak antzemateko ere balio behar baitu, eta kasu horretan psikologikoki behintzat emantzipatzeko balio du askatasunak. Badakit zapalduta nagoela, eta badakit nor edo zer den horrela naukana.

Ondorioena beste mundu bat da; zenbateraino erabiltzen dugun zigorraren eufemismo gisa, zenbat mendekugose, biolentzia, eta gehiegizko moralaren eragin dagoen ustez ondorio gisa aurkezten dugunaren atzean. Zerbaiten ondorioa, ekintza batek ekartzen digun ondorioaren bitartez ikasten duguna baizik ez da. Gehi-adina kontuan hartuta-inguruan sortutako kalte konpontzen saiatzea.

Oso gai konplexua da, badakit, baina badago beti gogoratu beharreko printzipioa: askatasuna norberarena da. Zeren eta beste norbaitek eman behar baldin badizu, lehenago kendu dizun seinale da. Gudan dago, poltsikoan. ●

## Euskaltegiak ertzengana



**ARKAITZ ZARRAGA  
AZUMENDI**  
EUSKARA IRAKASLEA

**U**EUko Glotodidaktika Sailaren topaketetan euskaltegiez eta interseksionalitateaz aritu dira hainbat aditu eta biktima. Ikasleak egon dira erdigunean, pribilegiarik gabeko ikasleak, zapalduak, bazterretan daudenak. Izan ere, genero disidenteeek, gorrek, itsuek, gaitasun askotarikoak dituztenek, beste kultura batzuetatik datozenek, espetxeetan dauden herritarrek... euskara ikasteko eta euskaldunon komunitateko kide sentitzeko zailtasunak dituzte.

Gorrek, itsuek edota dislexiaren bat duten ikasleek kontuan har ditzagun eskatu digute, euskara haienganatzeko moduez eurei galdetzeko. Materialak, irakasleen jarduerak, talde dinamikak... egokitu egin behar dira, ikasgelako praktikak irisgarriak bilakatu. Baina, gainera, azpimarratu digute euren ikas prozesua askotan luzeagoa izaten dela, azterketa sistemak hutsune handiak dituela haientzat...

Ikusi dugu, era berean, genero disidente euskaldunek modu berezian bizi dutela identitate bakoitza (euskalduna eta disidentea). Euskara eta "luma", adibidez, ez dira bateragarriak izan. LGT-BI+ kolektibokoek ez dute "baimenik" euskara "zikintzeko". Euskaltegiok asko dugu horren gainean hausnartzeko, material didaktikoak berrikusteko...

Askok irudikatu nahi dutenetik urrun, etorkinek ez dute euskara traba moduan

ikusten eta euskaldundu nahiko lukete, baina bidea ez da xamurra. Dirua eta denbora dituzte traba nagusi, baina, irakasteko moduak ere ez die gehiegi laguntzen. Askok ez dute irakurtzeko ohituarik edo ez dute gramatika ezagutza handirik, eta gurean asko dago idatzitik, gehiegi, eta gramatika oraindik ere ardatz garrantzitsua da. Azterketen manuak ere ez du laguntzen.

Espetxean, gizartearen ertzik baztertuenean, euskaldun askorentzat euskara benetan da territorio libre bakarra. Baina, euskara hain hurbil izan ez dutenek ere euskara oso urrun sentitzen dute han. Hala ere, azken aldian besarkadekin eta musuekin lotu dute, begirada ilunen eta bortizkeria handiko ezleku horretan. Gainera, euskarak ere behar ditu hango biztanleak, berrikuntza lexiko eta aberastasun iturri oparoa baitira edozein gizartetan.

Ertzetako hiztunek belarritik tiraka esan digutenez, diskurtsoetatik praktikara pasatzeko unea da, izan ere, "jendea bazterrean geratzen ari da, eta hori ezin da onartu". Baina, gainera, komunitatea aberastera datoz, eta hizkuntza bera ere bai. Sarrik topaketan esan bezala, arautik kanpo geratzen den guztia behar du hizkuntzak. Arauak, sarritan gure hizkuntza eta gure sormen aukerak mugatzen ditu, sorkuntza gehiena arautik kanpo egiten baita. ●

## Garaiz alde egiten jakitea



**EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE**

**B**adaude hitzak, formak, keinuak eta jarrerak gorputzean sartu eta handik irten ezin daitezkeenak. Gorputzean sartu eta bertan usteltzen direnak. Gorputza zulatzen dutenak. Gorputza deskonposatzen dutenak. Gorputza desagerrarazten dutenak. Eta akabo. Ezin daiteke deskonposatu den gorputz bat bere aurreko egoera batera itzuli. Ez behala. Galeraren txanda. Kasurik onean, konposta egoki egiten bada, eraldaketa dago horren ostean.

Ez da behar kanpo eraso fisiko bat gorputz bat ahultzeko, gaitasun hori daukate hitzek, formek, keinuek edota jarrerek. Burua eta gorputza ezinbes-

tean daudelako elkarrekintzan; batak besteari eragiten dio. Ezin dira banatu.

Bizipen batzuek min handi goa ematen dute gogoratzen direnean bizi izan direnean baino. Gogoratu, gorputzean zizelkatu diren marken bitartez eta traumatik gogoratzen direlako eta bizi, inertziatik eta normaltasunetik bizi direlako, ez sufritzeko beharrezkoa delako ez pentsatzea eta gertatzen ari dena zure buruari justifikatzea. Lagun batek behin esan zidan super botere bat aukeratu ahalko balu, lekuetatik garaiz alde egiten jakitea aukeratuko lukeela. Ez luzatu txikleka eta zaindu zeuen buruak. ●

# Folklore Basque-a



**ENEKO GORRI GANTIER**  
EUSKARA TEKNIKARIA

**U**da hasiera. EHZ festibalaren bihamuna (atx, buruko mina). Ikasurte kargatu baten ondotik, hatsa hartzeko gogo. Burua hustu. Funtsezko elementuei berriz konektatu. Familian denbora hartu, aspaldiko lagunak berriz ikusi eta eguneroko borrokak (pixa bat) pausan eman. Benetan?!...

Familian herriko plazara abiatu oinez, merkatuko giroan kafe bat hartzeko. Usaian baino saltzaile eta erosle gehiago bada, sasoi turistikoa hasi den seinale. Salmahaiei begiradatxo bat: hemen Ezpeletako biperren itxurako bitxi saltzaile bat, han bere barazkiak hemengoak direla sinestarazteko karpa lauburuz bete duen *komertxanta* diruzalea, ondoan Galiziako zerrikia "*charcuterie locale*" panel azpian saltzen duen kopetaduna eta ikurrinak bazter orotan! Bainu oihaletik, karta postalera, xingolatik, zapi puntara... Folklorizazioa eta kapitalismoa txanpon beraren bi aldeak.

Alabekin euskaraz mintzatzen entzun zaituen saltzaile gazte bat "zein hizkuntzatan" ari garen galdezka. "Hemengo hizkuntza: euskara! Ez duzu

Badu mende erdi bat gure Herriaren kultura karta postal batean sartu nahi dutela, helmuga turistiko erakargarri bat saltzeko eta jaunttoen boterea errotzeko

sekulan entzun, ala?" galdetzen diozu lañoki (baina asertibitate pittin batekin hala ere). Bere erantzuna: "Ez dut uste, alta hemen sortu eta handitu naiz ni". Kostalde frantsestu honetako plazan, dena da *basque* baina nehor ez *euskaldun*.

Zenbait egun berantago, furgonetaz Lapurdi ipar mendebaldetik Baxenafarroa hego ekialdera bidaian, bide bazterretako panelei behako bat. Herriko

besten kartelak turistentzako eskaintzarekin lehiatzen dira. "*Gala de force basque*", "*Spectacle de danses folkloriques*", "*Défi de pelote*", "*Méchoui traditionnel*", "*Coeurs d'hommes du Pays Basque*" ... hor ere hitzek eta iruditegiak begiak zirtzikatzen dizkizute.

Zola hunkitu duzula uste duzularik agertzen dira arroila handienak. Sare (anti)sozialetan tokiko errugbi talde handienak datorren sasoi kirol atorra aurkeztean egindako "akatsa" deskubritzen duzu. Euskal Herriko zazpi probintzietan erreferentzia egiterakoan, komunikazio zerbitzukoek horrela izendatu dituzte: "Lapurdi, Basse-Navarre, Soule, Labourd, Garazi, Baïgorry et Bidos". *No comment*, benetan.

Badu mende erdi bat gure Herriaren kultura karta postal batean sartu nahi dutela, helmuga turistiko erakargarri bat saltzeko eta Parisen meneko diren jaunttoen boterea errotzeko. Piztu zaitzu haserrea! Ikasurte berria borrokaz beterik dator. Piztu bozgorailua, igo bolumena eta jaka Spartak Dementziala talde bikainaren *Folklore basque*-a kantua. Ahhhhhh... Arnasa! ●

## Hiru gizarte proiektu lagunduko ditu Fagorrek

60.000 €, 40.000 € eta 20.000 €

### AURKEZTU ZURE PROIEKTUA!

Izen ematea zabalik irailaren 1etik 30era

Informazio gehiago, [www.fagor.eus](http://www.fagor.eus) webgunean



Hondarribian euskaraz bizi gara!  
Jai zoriontsuak igaro!



Hondarribiko  
Udala

## ETORRI BERRIAK

# HIZKUNTZA LAN GIROAN IKASTEKO BEHARRA

Lanaren bidez migratzaileei hizkuntzak irakasteko metodologiak eta estandarrak aztertu edota landu dituzte Aitor Montes Osakidetzako familia medikuak, Petra Elser itzultzaileak eta Mireia Plana Plataforma per la Llenguako lehendakariordeak. Ondorioztatu dute egon badaudela baliabide ugari, baina borondatea eta sistematizazioa falta direla.

 OLAIA L. GARAIALDE  JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

**P**etra Elser itzultzailea eta gizarte ekintzailea da, Banaiz Bagara elkarteak kidea. Elserrek etorkin helduei euskara irakasteko metodologia ugari landu ditu. Lana, kultura, kirola eta beste landu ditu hizkuntzaren transmisioaren bidez: “Jende askok onartuta dauka etorkinekin ezin dela euskaraz egin. Orduan, erdarara jotzen dute askok, eta soilik kontratatzen dituzte etorkinak ‘euskara behar ez den’ lanpostuetan”.

Hori dela eta, uste du migratzaile askok sentitzen dutela euskarak deus gutxirako balio duela: “Sistema eta politika konkretu batzuk daude horren atzean, eta horrek eragiten du pentsatzea euskara apaingarri dela”. Horregatik, Elserren erronkarik handiena zen euskara txertatzea helduentzako lanbide heziketako ikasketetan. Hau da, euskara ikastea, baina lanbideei eta ikasketei lotuta:

“Etorkinek ez dute aukerarik euskara ikasteko testuinguru zehatzetan eta benetan egiten dutenari lotuta”.

Horretarako, Suedian egindako metodologia batzuetan oinarritu ziren. Zaintza lanez arduratzen ziren langile migratzaileei suediera irakasten zieten zenbait orduz, baina urtebeteren ostean ikusi zuten ez zutela hizkuntza ikasten, ez zuelako zerikusirik egiten zuten lanarekin. Hortik hizkuntza lanarekin elkartzeko proiektu bat sortu zuten Suedian. Helburua zen zahar egoitzetan egiten zen lana erreproduzitzen hizkuntza ikastea. Hango eredu hartu eta Euskal Herrian txertatzen hasi ziren; hala nola ostalaritzan, zaintza lanetan eta industriako lanetan. “Soilik aste batzuetan egitea lortu genuen. Horrelako formakuntzak urte osoan eskaini beharko lirateke”, azaldu du Elserrek. Gainera, ez ziren formazio zentro horietatik pro-

pio sortu ziren formakuntzak, baizik eta kanpoko diru-laguntzei edo bestelako finantziarioei esker lorturikoak.

Elserren ustetan, gaia “neurri handi batean” politikoa da. Izan ere, metodologia egon badago, baina sistematizazioa falta da: “Oso proposamen onak daude, baina batzuetan inertziak ikasten dira gauzak eta azterketetara bideratuta daude”. Horrez gain, euskara ikasteko ingurua ere landu eta sentsibilizatu behar dela uste du: “Hizkuntza hegemonikoak beti entzungo ditugu inguruan, baina hizkuntza gutxituak ez, orduan giro hori sortu behar dugu”. Horretarako, lan egiteko orduan denbora hartu, eta “poliki-poliki” gauzak euskaraz azaltzeko denbora hartzea lagungarria dela dio: “Laneko gauzak egiterakoan euskara praktikatzeko lagungarria izan daiteke. Argi dago lanean urgentzia bat dagoen garaian ezin dela egin, baina lasaiago

Banaiz Bagara elkarteak urteak daramatza migratzaileentzako euskara-eskolak antolatzen, beti ere haien lanbideari lotuta diseinatutakoak. Argazkian Pako Aristi ageri da irakasle lanak egiten. 2018ko argazki honetan, zaintza lanetan aritzen diren emakume migratzaileak dira ikasleak.





gaudenean lehengo momentura itzuli gaitezke hizkuntza lantzeraz”. Galesen, esate baterako, “oso aurreratuta” dagoen teknika da.

### HERRIALDE KATALANETARA ESPAINIATIK ETA HEGO AMERIKETATIK DOAZ LANGILEAK

Osasun arloko langile falta lurralde askotara zabaltzen ari den afera da. Herrialde Katalanetan ere, langileak aurkitzeko arazoak dituzte. Plataforma per la Llenguako (Hizkuntzaren aldeko plataforma) lehendakariordea da Mireia Plana. Azaldu duenez, Herrialde Katalanetako langile asko Europako beste herrialdeetara joaten dira bizi baldintza hobetuegi bila: “Horregatik, beste herrialdeetatik inportatzen ari gara langileak; batez ere, Espainiatik eta Hego Ameriketatik. Askok azpimarratzen dutena zera da: ‘Espainian gaudenez, espainolez egingo dugu’”. Hori dela eta, geroz eta langile gutxiago dago katalanez artatzeko.

2023. urtean, Carme Junyent hizkuntzalariak *Morir-se en català* (Katalanez hil) artikulua idatzi zuen zendu aurretik. Salatu zuen bizitzako azken urteetan “geroz eta zailtasun handiagoak” izan zituela katalanez artatua izateko. “Ospitalizazioetako batean, medikuak gaztelaniaz hitz egiteko eskatu dit, eta nik galdetu diot ez ote duen kezkatzen katalanez ezin hiltzeak. Berak esan dit hobeto artatzeko dela. Hor sortzen da lehenengo hausnarketa etikoa: zein hizkuntza lehenetsi behar da, pazientearena edo medikuarena?”, zioen artikulua pasarte batean. “Ikaragarria da momenturik zaurgarrietan gure eskubideak zapalduak izatea”, salatu du Planak.

Ez da ezerezetik sortu den afera; gorarazi du aspalditik salatzen dutela larrialdi linguistikoan daudela: “Gobernua orain hasi da neurriak hartzen; batez ere, osasun arloan”. Osasun sistema publikoko langile guztientzako hizkuntza plana sortu dute. Plan horren barruan, lanari lotutako gaiak jorratuz katalana ikasteko doako ikastaroak egiten dituzte lanorduetan.

Gaztelania zein katalana hizkuntza erromanikoak dira, eta antzekotasun “handiak” dituzte Planaren arabera. Horregatik, uste du ikasteko borondatea duen jendeak “erraz” eta “azkar” ikasi dezakeela. Hala ere, gertutasun hori batzuetan lagungarria den arren, beste askotan katalanaren kalterako ere izan



Argazkikoak Municheko Integrationskurs integrazio ikastaro bateko ikasleak dira. Ikastaro horien helburua atzeritarrei Alemaniako bizimodua ezagutzeko tresnak ematea da. Tartean alemana irakasten zaie.

“Etorkinek ez dute aukerarik euskara ikasteko testuinguru zehatzetan eta benetan egiten dutenari lotuta”

Petra Elser

daitekeela dio: “Oso gertukoak direnez, jendeak gaztelaniaz egiteko eskatzen digu. Baina kontua ez da hori, jokoan dagoena hizkuntza eskubideak dira”.

Horrez gain, 2002an Bikote linguistikoak egitasmoa (Euskal Herriko mintzalaguna edo berbalaguna) martxan jarri zuen Cornellà de Llobregateko Udalak. Poliki-poliki zabalduz joan zenez, 2003an Kataluniako Generalitateak proiektuaren gidaritza hartu zuen. Proiektu horren bidez, katalanez ongi moldatzen diren eta katalana ikasten ari diren pertsonak elkartzen dituzte ordubetik praktikatzeko. Helburua da ohiko eredu formaletatik ateratzeko eta katalana egunerokoan erabili ahal izateko aukera izatea. Eremu ez-formaletarako diseinatutako egitasmoa lan esparruan probatu zuten, batez ere osasun zentroetan, eta langile katalan hiztuna eta erdal hiztuna elkarrekin jar-

tzen zituzten hizkuntza praktikatzeko. “Bikote linguistikoek arrakasta handia izan dute ez delako soilik hitzak ikastea; atzean dagoen kultura oso bat ezagutzeko aukera bat da”, esan du Planak.

### KANADAN, AEB-ETAN ETA HEMEN

Osasun arloan hizkuntzak jorratzen dituzten estandarrek aztertu ditu Aitor Montes Osakidetzako familia medikuak. Beste herrialdeetan bertako hizkuntzak eta pazienteen hizkuntzak zaintzeko eta errespetatzeko dauden ereduak ikeritu, eta Euskal Herrirako baliagarriak izan daitezkeen hausnartu du: “Orain dugun osasun sistema publikoa estatu nazionalan oinarrituta dago; hala nola Frantzia, Espainia eta Erresuma Batuan. Estatu nazionala izateak hizkuntza bat dakar, eta horrek eragiten du osasun arloko profesionalen ibilbidea, prestakuntza, eta sozializazioa hizkuntza nagusietan egitea. Ez da zalantzan jarri”.

Gero eta ohikoagoa da lurralde berean are eta hizkuntza gehiago elkarbizitza. Amerikako Estatu Batuetako adibidea ekarri du Montese eta haien ikuspegia kontatu du. Azaldu du nola hango osasun arloko profesionalak konfaturatu diren geroz eta paziente gehiago daudela ingelesa edo frantsesa ezagutzen ez dutenak, edo ez direnak gai gonoraz erabiltzeko. Egoera horiek definitzeko *language barrier* –hizkuntza mugak– kontzeptua asmatu dute. AEBetako estandarren arabera, hizkuntza

mugak dira hizkuntza partekatzen ez duten pazienteen eta osasun arloko profesionalen arteko mugak: “Potentzia edo nazio estatuak hizkuntza komunikazio tresna izatera mugatzen dute, eta esaten dute pazienteek dutela hizkuntza muga, eta eurek ekartzen duten zama eta traba bat dela”.

Montesek azaldu du estandar horien arabera, “oso profil mugatuan” kokatzen dituztela ingelesa ez dakitenak. Izendapenak harrizten du, izan ere, AEBetan, LEP *Limited English Proficiency* deitzen diete ingeles gaitasun mugatua duten pertsonari. “Horrek ardura pazientearengan jartzen du, zu zarelako ingeles gaitasun mugatua duen pertsona”.

AEBetan, ingelesaz gain, milioika dira gaztelania ama hizkuntza daukatenak. Horregatik, “arraroa” egiten zaio ez eskaintzea osasun arreta gaztelaniaz: “Zeozero egin dute komunikazioa bermatzeko, baina ikuspegia argi geratzen da, mundu guztiak jakin behar du ingelesa, euren sistema kulturalaren inposaketa eta asimilazioa da. Konstituzioan ez du jartzen ingelesa hizkuntza ofiziala denik, baina hezkuntza prozesua ingelesez da”. Montes ez dago ados kontzeptu eta praktika horiekin: “Hori da gehien inposatu edo zabaldu den eredia, baina gurean ez dauka zentzurik. Ez dugu molde hori jarraitu behar”.

Zalantzan jarri du hizkuntza txikiek, euskarak kasu, molde horietan daukaten lekua: “Gaztelaniaz moldatu naiteke, baina euskaraz nahiago dut. Arazoa ez da komunikazioa. Nik ulertzen zaitut, baina behar dudana da enpatia, gertutasuna eta eroso sentitzea”. Hala ere, badira soilik euskaraz moldatzen direnak; esate baterako haurrak. Kasu horietan, guraso askok itzultzaile lana egin behar izaten dute: “Askotan haserretu egiten dira medikuentzat haurrarekin komunikatzea ezinezkoa delako. Azkenean gaztelania ikasiko dute, baina hori ere inposaketa da”.

## ESKAINNTZA AKTIBOA

Itzulpenaren ereduaren aurrean, “hizkuntza parekotasuna” proposatu du Montesek. Kanadan sortu eta Galesera ere zabaldu diren zenbait neurri dira. Uste du eredugarri izan daitekeela Euskal Herriko osasun sistemarentzat. Kanadan ingelesa nagusitzen den arren, bi hizkuntza ofizial dituzte, ingelesa eta frantsesa: “Eurek argi dute eskubide bat dela osasun arreta norberaren hizkuntzan jasotzea eta beharrezkoa dela kalitatezko zerbitzua emateko. Horregatik, osasun sistemaren ardura eta erantzukizuna da horrela jokatzela”.

*Active offer* –eskaintza aktiboa– deitzen diote eredu horri. Izan ere, helburua da pazientearen beharren arabera arreta eskaintzea: “Beharren bat duzula zatoz: larri, jota, kezkatuta, laguntza eske, edo auskalo. Sistemak egoera horri aurre egin behar dio eta zuk eskatu gabe zerbitzua zure hizkuntzan eskaini”.

Eredu baliagarriak dituzten arren, kosta egiten zaie horrelako egitasmoak praktikan jartzea, Euskal Herrian bezala, Kanadan ere, osasun arloko langileen hutsunea dutelako. Horregatik, saiatzen ari dira Afrikako hegoaldeko mediku frantses hiztunak Kanadara eramaten: “Mediku guztiak Kanadara eramaten badituzte, zer gertatuko da gero Afrikan?”.

Montesek uste du eredu hori Euskal Herrian erreproduzitzeko arriskua dagoela, ez dagoelako merkatuan profesional gehiago edukitzeko gaitasunik: “Gaztelania dakiten profesionalak inportatzen hasiko gara. Zer gertatuko da Galiziara, Herrialde Katalanetara edo Euskal Herrira iristen badira?”. Hain zuzen, urte honen hasieran, Osakidetzak medikuen eta erizainen hautaketa prozesuetarako beste neurri baten berri eman zuen. Neurri horren arabera, Osakidetzak 55 espezialitatetan Europako Batasunetik kanpoko mediku eta erizainak kontratatuko ditu langile gabeziari aurre egiteko.

2021eko uztailean, Unai Break aste-kari honetan egindako artikuluan (*Mediku falta, etorkizunak dakarren mehatxua*), Bizkaiko Sendagileen Elkarte-ko presidente Cosme Naveda elkarrizketatu zuen eta hark mediku gabeziaren hainbat arrazoi azpimarratu zituen: medikuntza ikasketak egiteko plaza mugatuak, ofizioaren prestigio galera, sektore publikoan lan baldintza kaskarrak, sektore pribaturako ihesa, eta bertako profesionalak atzerrira joatea lan baldintza hobeen bila.

Langile berrien kasuan hartu beharreko bi neurri argi ditu Montesek. Alde batetik, uste du harrera protokoloetan azaldu behar zaiela non dauden, zernolako osasun sistema den, nola lan egiten duten, paziente batzuek euskaraz nahiago dutela eta hori errespetatu behar dela, eta beste gauza asko. Bestetik, hizkuntzaren inguruko prestakuntza eskaini behar dela dio: “Ez diot EGA ateratzeko moduko zerbait ikasi behar dutenik, baina oinarritzko gauzak bai eta ongi jakin zein baliabide dauden”.

Montesek ohartarazi du hizkuntza eskubideak arriskuan egoteaz gain, osasun sistema publikoa orokorrean “pikutara” doala: “Euskara eskatzen hasi garenerako, osasun sistema publikoa suntsitzen hasi dira. Gaur egun, gerta liteke ezinezkoa izatea ganorazko arreta jasotzea gaztelaniaz zein euskaraz”. Halere, euskararen alde egitea osasun sistema publikoa indartzearen alde egitea



Katalunian ‘bikote linguistikoak’ dinamika (gure mintzalaguna) lan munduan ere erabili dute. Argazkian Lleidakako Udalaren egitasmo batean parte hartu zuen bikote linguistikoetako bat ageri da.

dela uste du: “Kanadako biztanleen %5 frantses hiztunak dira, eta halere lortu dute frantsesez artatzea. Gure kasuan, ez dugu euskaraz eskatuko, onartu dugulako ezinezkoa dela arreta euskaraz jasotzea. Kanadako datuak ikusita ez luke ezinezkoa izan beharko Gasteizen, Lizarran (Nafarroa) edo Tallan (Nafarroa) euskaraz artatzea”.

Azpimarratu du baliabide “ugari” daudela osasun sistema publiko eta euskalduna sustatzeko: “Munduko liderrak izan gintezkeen, baina kudeaketa tamalgarria izan da, eta ematen du ez dagoela borondaterik osasun sistema publikoa indartzeko”.

### INTEGRAZIO IKASTAROAK

Alemanian, *Integrationskurs* izeneko integrazio ikastaroak daude. Ikastaro horien helburua da atzeritarrei Alemaniako bizimodua ezagutzeko tresnak ematea; hala nola Alemaniako lege-sistema, politika, kultura eta gizartea azaltzen zaie, eta alemana irakasten zaie. “Printzipioz, lanean hasi baino lehen edo zure egoera erregulartzeko egin behar duzu”, azaldu du Petra Elserrek. Sei hilabete izaten dira, eta oinarriko hizkuntza gaitasunak eskaintzen dituzte. Doako ikastaroak dira; hala ere, Alemaniako Gobernuak erdira jaitsi du finantziarioa 2025. urterako. Anja Pielek, DGB Alemaniako Sindikatuen Federazioko zuzendari-tzako kideak, salatu zuen horrelako neurriek migratzaileak “are gehiago” kaltetzen dituztela: “Zoritxarrez etorkinak dira lan ezegonkorrak, prekarioak eta soldata baxuak dituztenak”.

Federazioak egindako ikerketen arabera, Alemanian bizi diren migratzaileen %20 lanaren etorkizunagatik kezkatuta dago; bertan jaiotakoen artean aldiz, %13. Etorkinen hirukoitzak ditu behin-behineko lan kontratuak. Horrekin batera, migratzaileen %40ak oso diru-sarrera urriak ditu edo ez du nahiko bizitzeko.

Daniela Ponce (Nikaragua) etxeko eta zaintza langilea da. 19 urte zituen haurrak zaintzera joan zen Alemaniako etxe batera. Ez dauka argi *Integrationskurs* horietako batean parte hartu zuen edo zeinetan. Hala ere, egunero, haurrak goizean zaindu ostean, alemana ikastera joaten zen. “Etxekoak paper guztiez arduratu ziren eta asko nabarmentzen zuten ikastearen garrantzia”. Berari egindako elkarrizketa duzue egidan.

# “Euskara ikastea formakuntza soziosanitarioa bezain garrantzitsua izan beharko litzateke”

Daniela Ponce, zaintza langilea

**I**a dena ulertzen duen arren, kosta egiten zaio euskaraz mintzatzea Daniela Ponceri (Nikaragua, 1974). Etxeko eta zaintza langilea da, eta euskara ikasi nahiko luke, baina laneko ordutegi luzeen ondorioz ezinezkoa zaio. Zaintza lanetan aritzen diren askok larunbatak libre izaten dituztenez, Zaldibian (Gipuzkoa) larunbatetan euskara klaseak jasotzeko talde bat antolatu nahi dute aspaldi: “Lortu arte borrokan jarraituko dugu”.

### Nola iritsi zinen Euskal Herrira?

Orain krisi politikoaengatik gertatzen den bezala, garai batean jende asko joaten zen Nikaragutatik. Denak Espainiara joaten ginen; guretzat ez zen Euskal Herria existitzen. Esaten dizute ongi biziko zarela eta ongi kobratuko duzula. Amets bat dirudi, baina gero ikusten duzu errealitatea ez dela horren erraza. Lan egiteko ilusioz etortzen gara, esaten digutelako 1.000 euro kobratzen direla. Guretzat, lehen, 1.000 euro Nikaraguan asko ziren, egun, oso gutxi da dena dolarizatu delako.

Lehenik, Donostiara iritsi nintzen, baina oso gutxi egon nintzen 270 euro balio zuelako gela bat alokatzeak. 2008 izateko asko zen. Gainera, ez nengoen ohituta horrenbeste jendekin bizitzera. Pisuan zegoen emakume batek Caritaseko lan poltsan izena emateko esan zidan. Izena eman, eta Zaldibian gizon bat zaintzen hasi nintzen.

### Nolakoa zen lana?

Berez ez nuen soldatarik, akonpainamendurako nengoelako, baina erroldatzeko aukera eskaintzen zuten, diru-laguntza txiki bat eta ostatua. Horrelako egoeratan, ateratzen den lehenengo gauza hartzen dugu. Azken finean, bisa

turistikoarekin iristen gara eta gero irregular geratzen gara. Hori hartu behar duzu bai edo bai, ez dagoelako beste aukerarik.

### Bertan izan zenuen euskararekin lehen kontaktua?

Errealitate euskalduna ezagutu eta beste hizkuntza bat zegoela ikusi nuen. Ordura arte, Donostian, soilik gaztelaniaz hitz egiten zidatenez, ez nuen alderik sumatu. Zaldibian egoera erabat aldatu zen, etengabe entzuten nuelako euskara. Gizon batek bereziki asko lagundu ninduen eta animatzen ninduen euskara ikastera, baina ezinezkoa zen egun osoa lanean ematen nuelako. Hala ere, oinarriko esaldiak ikasi nituen; hala nola *Kaixo!, Egun on!, Zer moduz?* eta horrelako gauzak.

### Euskara ikasteko formakuntzarik jasotzen zenuen?

Ez. Horren ostean, Erreterriako etxe batera joan nintzen. Han bizitzeko zenbait arau zeuden; horien artean, esan ziguten zenbait ikastaro egin behar genituela; adibidez, zerbitzari edo geriatrico laguntzailea izateko ikastaroak. Hala ere, ez ziguten euskara ikasteko aukerarik eskaini. Geriatrico gitea erabaki genuen zahar asko daudelako. Horren ostean, berriz itzuli nintzen Zaldibiako baserri batera eta hor denek euskaraz egiten zuten.

### Euskararen murgiltzeak ikasten lagundu zizun?

Han ikasi nuen euskara gehien, etxeko langile egoiliarra nintzelako. Horrek piztu zidan euskararekiko interesa. Horregatik, saiatzen nintzen eguneroko gauzen bidez ikasten; adibidez, nola esaten den sagardoa euskaraz edo gau-

za praktikoak. Poliki-poliki hiztegia osatzen joan nintzen, eta 2015ean kultur etxeko ikastaro bat egitea erabaki nuen. Orduetegi aldetik ongi etortzen zitzaidan, bi orduko baimena eskatu bainuen ikasteko. Hala ere, gutxi iraun zuen, justu ikastaroa hasi, eta familia berriz elkartzeko prozesua egiten ari nintzenez, haurren bila joateko baimena eman zidaten. Itzuli nintzenez, zaintzen nituen emakumeen osasunak behera egin eta baimen ordu haiek galdu nituen.

**Zaintza lanetan aritzen zaretenek salatzen duzue gauza askoren artean ez duzuela aisialdirako tarterik. Horrelako ordutegiak izanda euskara ikasteak badu lekurik?**

Gutxi gorabeherako soldata duin bat lortzeko ordu asko egin behar ditugu; bestela ezinezkoa da. Zaldibian, adibidez, guretzat ezinezkoa da berandu libratzen garelako. Ni, adibidez, 19:30ak arte lanean ari naiz. Zaintzaile lanetan ari garen gehienok larunbatak libre ditugunez, larunbatetan eskolak jartzeko eskatu dugu, baina ez dugu lortu. Asko eskertuko genuke gauzak pixka bat erraztea. Guretzat oso zaila da euskara ikastaroetan parte hartzea, oso ordutegi esklaboak ditugulako askotan, eta zer esanik ez etxeko langile egoiliarren kasuan. Horiek ez daukate tarte bat ere.

**Seme-alabetan txikiena Euskal Herrian jaio zen eta beste biak nerabe zirenean etorri ziren. Alderik sumatu duzu euskara ikasteko prozesuan?**

Txikienak txikitatik ikasi du eta oso ongi identifikatzen du noiz erabili hizkuntza bakoitza. Asko ikasten dut berarekin. Nagusienak 16 urte zituenek, hurrengo ikasturtea hasi baino lehen sei hilabetez ikasi zuen euskara euskaltegian, eta gero oso ongi moldatu zen institutuan. Oso ikasle ona zen, eta emaitza bikainak ateratzen zituen euskara ikasgaietan ezik. Normala den bezala, gehiengo kostatzen zitzaion. Euskara irakasleak ez zuen batere lagundu. Ertainak, aldiz, 15 urte zituenek, ezin izan zuen euskaltegian izena eman, baina euskara irakasleak asko lagundu zuen. Hirurak oso ongi moldatzen dira orain. Askotan, beste gurasoek azpimarratzen didate haurrek berehala ikasi zutela euskara, eta galdetzen didate ea noiz ikasiko dudan. Jakingo balute zenbat lanordu egiten ditudan, ez lukete galdetuko noiz ikasiko dudana euskara.



URA ITURRALDE

“Zaintzaile lanetan ari garen gehienok larunbatak libre ditugunez larunbatetan klaseak jartzeko eskatu dugu, baina ez dugu lortu”

**Alemanian ere bizi izan zara. Alemana ikasi eta beste eredu bat ezagutu duzu. Nolakoa izan zen esperientzia?**

Oso gaztetxo nintzenez joan nintzen familia baten etxera bizitzera eta haurrak zaintzera. Goizetan haurrak zaindu, eta arratsaldetan alemana ikastera joaten nintzen. Ez dakit oso ongi zergatik zen, baina haurren gurasoak arduratu ziren dena antolatzeaz. Esan zidaten

derrigorrezkoa zela arratsaldero alemana ikastera joatea. Asko nabarmentzen zuten, eta garrantzi handia ematen zioten ikasteari. Hasieran ez nuen deus ulertzen, baina azkenean ikasi nuen. Gainera, ez neukan beste erremediorik. Oso esperientzia polita izan zen.

**Uste duzu hizkuntza irakasteko Alemaniako modua eredu izan daitekeela euskara ikasteko?**

Uste dut baliagarria izan daitekeela. Lan egiteko zenbait baldintza bete behar ditugu, tartean, formakuntza soziosanitarioa izan behar dugu. Uste dut euskara jakitea formakuntza soziosanitarioa bezain garrantzitsua izan beharko litzatekeela. Adibidez, dementziaren bat duten pertsonen ama hizkuntza galtzea oso zaila izanen da, eta gure inguruan gehienek ama hizkuntza euskara da. Orduan, nola komunikatuko gara pertsona horiekin, gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna galdu eta soilik euskaraz hitz egiten badute? Euren hizkuntzan artatu ahal izatea zaintzaren parte da. ●

## SEBAHAT TUNCEL

# “Ohikoa bihurtu da politikari kurduak espexeratzea”



Sebahat Tuncel Kurdistango politikaria da, Turkiaren menpeko lurretan. Hainbatetan egon da kartzelan kurduen askapen mugimenduaren parte izateagatik, eta Turkiako Parlamenturako diputatu gisa hautatu zuten lehen preso izan zen, 2007an. 2016an espexeratu zuten azkenengoz eta zigorrak pilatu dizkiote preso zegoela, terrorismo delituak leporatuta zein politikari bezala egindako hainbat adierazpenengatik, haien artean Erdogan “emakumeen etsaia” dela esatea. Maiatza erdialdean atera zen kartzelatik eta ARGIaren galderei erantzuteko tarte hartu du.

 JON HIDALGO GEREÑU  MEZOPOTAMYA AJANSI

## Nola ikusten duzu egoera espexetik irten ondoren? Zer aldatu da?

Zortzi bat urte dira kartzelan sartu gintuztela. Ordutik aldaketa asko egon da, noski. Baina kartzelak isolatzeko tresnak direnez, ezin barrutik ondo jarraitu kanpoan gertatu diren gauza guztiak. Turkiako kartzelatan oposizioaren prentsa debekatuta dago, eta gobernuaren hedabideen bidez jarraitu behar izan dugu gizartearen bilakaera, oso modu mugatuan, beraz. Bizitza poliki doa espexean, eta kanpoan azkar. Han denak dauka porlan kolorea.

Kartzelatik irtetea konturatzen zara politikoki gauza asko aldatu direla, baina beste batzuek berdin jarraitzen

ditela. Kurduen aurkako kanpaina indarrean dago oraindik. Jendeak argi du aldaketa beharra dagoela, baina ez dago aldaketa etorriko den itxaropenik. Denbora gutxi daramat kalean, eta bilakaera ulertzen saiatzen ari naiz oraindik.

## Zein da kurduen egoera Turkiako espexean?

10.000 preso politiko kurdu baino gehiago daude kartzela turkiarretan oraintxe bertan. Turkiar Errepublikan ezarri zenetik legea eta justizia kurduen aurka erabili dira. Azken hogeitazietan, ehunka mila dira epaitu dituzten kurduak. *De facto* kentzen digu herritartasuna estatuak; Turkiako Konstituzioak

berak lapurtzen dizkigu oinarriko eskubideak, politika egiteko eskubidea, antolatu eta protesta egitekoa. Kurdistango 4.000 preso politiko inguru arbitrarioki mantentzen dituzte kartzelan, kanpoan behar luketenean, jarrera onik ez dutela argudiatuta.

## 2010eko hamarkadan, zuek azkenengoz kartzelan sartu aurretik, “autonomia demokratikoaren” aldeko mugimendu handia egon zen Bakurren, Turkiako Kurdistanen.

2013an kurduentzako prozesu garrantzitsua hasi zen Turkian. Negoziaketak hasi ziren kurduen lider Abdullah Ocalanen eta estatuko ordezkarien artean eta horrek aukera zabaldu zuen Turkian demokratizazio eta askapen prozesua abiatzeko. Turkiarren %80ak babes ten zuen bake prozesu hura. 2015ean kurduen aldeko HDP alderdia indarrez sartu zen Turkiako hauteskundeetan, 80 ordezkariarekin, bozen %13 lortuta. Ondorioz, Erdoganen AKP alderdia mehatxatua sentitu zen. Hauteskundeen emaitzak baliogabetu zituen, elkarriketetan lortutako akordioei ez entzunarena egin zien eta bertan behera utzi zuen negoziaketa prozesua.

2016an Bakurren garatuak genituen gobernu autonomoak aitortzea exijitu genuen. Gogor erantzun zuen AKPk. Etxeratze agindua deklaratu zuen hila bete luzez, ehunka pertsona hil zituzten, milaka bahitu, eta milioika zibilek utzi behar izan zituzten beren bizilekuak.





Kurdistanen aldeko erakunde ugari debekatu zituzten, HDP barne. Gure ordezkariak espetxeratu zituzten, eta gobernu faxistak bere agintariak inposatu zituen kurduak irabazitako zonaldeetan. Zauri sakonak utzi ditu horrek guztiak biztanle kurduengan.

### Zein da egoera egun Bakurren?

Turkian gobernuak aldatzen badira ere, kurduetik jarraera ez da aldatzen, gure askatasun nahia mehatxua da Turkiako Estatuarentzat. XXI. mendean sartuta, onartezina da Kurdistango herriaren existentzia ukatzen saiatzea. Hala ere, gainerako nazio estatuak beste interes batzuk dituzte, eta ezikusiarrena egiten dute, haien aletxoak jarriz kurduen zapalkuntzan.

Ez da soilik Turkiaren arazoa, Ekialde Hurbil osoarena baizik. Erresuma Batuak, AEBek eta Europar Batasunak ere erantzukizuna dute konponbidea bilatzeko. Ekialde Hurbilean demokraziaren alde badaude, ezin dute konplize izan Turkia, Iran, Irak eta Siriak kurduak eragindako zapalkuntzan. Kurduen borrorak bermatzen du etorkizuna Ekialde Hurbileko pertsona guztientzat. Kurduak salbatu zuten mundua ISISen

**“Ezin da konponbidea bilatu egitura zaharrak erabilita”**



**“Gauza asko aldatu dira, baina ez da ezer aldatu”**



kolpeetatik. Errepublika konfederal demokratikoa proposatzen dugu Ekialde Hurbilean, eta bertako herri guztiak gonbidatzen ditugu bizitza berri baten alde borrokatzera.

### Zuek Kobane auzia izenekoan zigortu zintuzteten. Zein ziren auzi horren oinarriak?

2014ko urrian ISISeko taldeek Kobane inbaditu zutenean, HDPko buruzagitzak txio bat idatzi zuen, Kobaneko herritarrekin elkertasunez eta estatuari eskatzen ardura hartzeko ISISen aurka. Mezu hori izan zen leporatzen ziguten

krimena. Sei urte geroago, akusazioak esan zuen urte haietan gertatutako heriotza eta indarkeria guztiak txio haren eta gure jardun politikoaren ondorio izan zirela, nahiz eta hildako gehienak gure alderdiko kideak izan. Bizi osorako 38 espetxe zigor eta milaka urteko espetxeratzea eskatu zuten gure aurka. Nahiz eta akusazio gehienetan absolutzioa lortu, HDPko batzorde exekutiboko kideei zigor gogorrek ezarri zizkiguten, argudiatuta Turkiako Estatuaren batasuna eta integritatea oztopatzen genituela. Politikari kurdu gisa egiten genuen jarduna hartu zuten froga gisa.

### HDP garrantzitsua izan zen Turkiako Gobernuaren eta PKKren arteko negoziaketetan. Zer ikasi duzue prozesu honetatik?

HDPk parte hartu zuen Turkiako Estatuaren eta Abdullah Ocalanen arteko negoziaketetan, Imraliko kartzelan zein Qandileko mendietan. 2015ean, frogatu zenean gizartearen babes handia lortu zutela HDPren programak eta bake proposamenak, Erdogan negoziazio mahaia utzi zuen, ukazio eta suntsiketa politikara itzultzeko. AKPren gobernuak ez du benetako konponbiderik



nahi, argi geratu zen hori bere "Kolapso plana" publiko egin zenean: esku batekin negoziaketa prozesuan parte hartu; bestearekin plan sekretua prestatu Kurdistango Askapen Mugimendua akabatzeko. Ezer ez da aldatu, 1925ean oso antzeko plan sekretua prestatu zuen Turkiako Gobernuak, ordutik kurduetik jarrera markatu duena.

Ikasi dugu negoziaketa prozesuak gardena izan behar duela eta irekia egon behar duela publikoki aztertua izan dadin. Alde guztiak maila berean egon behar dira, eta oinarri legala behar du, ofiziala izan, prozesua osasuntsua izateko.

### **Turkiako instituzioetan izandako esperientziatik begiratuta, zenbateko aldaketa lortu daiteke eremu horretatik?**

Kurdistango mugimendu politikoak, bereziki emakumeen askapenerako mugimenduak, eragin handia izan du Turkiako emakumeen mugimenduan eta oro har politikan. Presidentekidetzaren sistemak, emakumeek gizonen ordezkariak izateak eta erabakietan parte hartzeak aldatu egin du politikaren kolorea. Hala ere, modernitate kapitalistak sortutako arazo politiko, sozial eta ekonomikoek ezin zaie konponbidea bilatu metodo eta egitura zaharrak erabiliz. Kurdistango askapen mugimenduak alternatiba proposatzen du XXI. menderako, bizitza berri bat eraikitzea paradigma demokratiko ekologiko berri baten bidez, emakumeen askapena oinarri. Rojavako iraultza da adibiderik argiena. Politikan, gizartean eta ekonomian aldaketak egiteko, sistema ezberdina garatu beharra dago. Kurduok pauso garrantzitsuak eman ditugu, teorian zein praktikan. Ezarria zaigun sistema erlijioso, nazionalista, sexista eta faxistaren aurkako borroka da gurea.

### **HDP 2023an disolbatu eta DEM alderdia eta beste talde batzuk sortu ziren. Nolakoa da egoera politikoa egun?**

Kartzelatik bizi izan nuen HDP alderdiaren debekua. Aliantzaren parte zen Ezkerreko Berdeen alderdia aurkeztu zen hauteskundeetara 2023ko maiatzean, eta hauteskundeon ondoren izena aldatu zitzaion, Herriaren Berdintasun eta Demokraziaren Alderdia deitzeko. Hori ere debekatu ziguten, eta DEM izena jarri zen azkenean. Denbora esan nahi



## **“Onartezina da XXI. mendean Kurdistango herriaren existentzia ukatzea”**



du kurdueraz, *Dem Dema Azadi* (Askatasun garaia da) leloan bezala.

1990. hamarkadatik debekatu izan ditu estatuak alderdi politiko kurduak. Hala ere, gu tematu egin gara eta alderdi berri bat sortu dugu aldiro. Ohiko bihurtu da politikariak espertzeratzea eta kurduei politikan parte hartzeko eskubidea kentzea. Baina arazo nagusia da kurduoi ez dizkigutela gure identitatea eta herri izaera onartzen, horregatik dauzkagu kanpotik inposatutako agintariak. Turkian ez dago demokraziarik.

### **Hakkari eskualdeko gobernadore kurduari hemeretzi urteko espetze zigorra ezarri berri diote ekainean. Azkenaldian ere izan dira antzeko kasu gehiago.**

2016tik sistematikoki kendu dituzte kurduak hautatutako alkateak, edozein froga arbitrario erabilita, dozenaka zigor jarri dira “lekuko sekretu” baten adierazpenetan oinarrituta. Lege ezberdina ezartzen zaigu kurduoi: Etsaiaren Legea deitzen da ofizialki, baina Lege Koloniala deitu beharko litzateke.

Oinarrizko askatasun eta eskubideak lapurtzen dizkigu Lege Antiterroristaren bidez. Atxiloketak, agintariak inposatzea, Imrali irlako tortura sistema, horiek guztiak kurduen aurkako genozidio politikorako neurriak dira.

### **Itxaropenik duzue negoziaketa prozesu berri baterako?**

Beti dugu itxaropena, batez ere Herri kurdua ari delako askatasuna eskatzen. Turkia fundatu zenean, turkiarrek batera borrokatu zuten kurduak uste zuten burujabeak eta herritar askeak izango zirela partekatutako aberrian, hala hitzeman zien Mustafa Kemal Turkiaren sortzaileak. Baina estatuaren sorreratik bertatik egin zien traizio, eta hori izan da ordutik kurduen aurkako estrategia: ukazioa, hilketa eta asimilazioa. Hala ere, bizirik eta borrokan jarraitzen dugu. 30 milioi kurdu baino gehiago gara Turkian, eta aske bizi nahi dugu gure hizkuntza, identitate eta kulturarekin.

### **Zein dira zure etorkizunerako asmoak?**

Denbora gutxi daramat espetxetik kanpo, azken zortzi urteei zentzua bilatzen nabil. Barruan ez zegoen aukera askorik, baina hemendik aurrera jarraituko dut borrokarekin daukadan ardura hartzen. Erantzukizuna dugu gure herriarekiko, emakumeekiko. Iraultzaile gisa, nire eginbeharra da jendeak gutaz espero duena egitea. Askatasun demokratikoaren aldeko bidaian jarraitzea da gure asmoa. ●

# LORATEGI BAT DESAGERTUEI

Manuela Aldabe artista, kazetari eta irakasle uruguaitarra da eta urteak daramatza bere praktika artistikoarekin heriotza bidegabeak ikertzen. 2016an hasi zen feminizidioaren biktima izan diren emakumeen jantzien inguruan lanean eta, besteak beste, senarrak hil zuen Delmira Agustini poeta uruguaitarraren emaztegai-soinekoarekin egin zuen lan. *En ella estamos todas* deituriko instalazio artistikoa inauguratu du Montevideoko (Uruguai) Kolonurreko Arte Indigenaren Museoa.



**U**ruguaiko auzitegi-antropologia taldeak Infanteriako Hamalau-garren Batailoian aurkitu duen gorpuari eskaini dio Aldabek aurkeztu berri duen lana. Gorpua diktadura garaian desagerrarazi zuten. Artetik omenaldi kolektiboa egiteko asmoarekin iritsi da desagertutakoen gaia lantzerantz. “Gure lurraldean eta historian noraezean gelditu diren heriotzak dira eta horiei ikusgarritasuna eta leku propioa emateko bilaketak bultzatzen nau lan hau egitera”, dio proiektuaren zergatiak galdetuta.

Hamalau-garren batailoiko lau hilobitako lurra erabili du han desagerrarazi eta lurperatutakoen memoria omenduko duen lorategi bat eraikitzeko. Bere ustez, 40 urte hauetan gorpuzkiak lur bilakatu dira, konpost, lurra elikatu dute eta bertatik lore berriak jaio dira. Prozesuaz zera dio: “Hilobi bakoitza, gizaki bakoitza oso singularra izan da; batzuek lur trinkoa zuten, beste batzuek karea. Julio Castroren (1908-1977-2011) hilobiko lurra, adibidez, hondarra da. Julio Castro kazetaria eta maisua zen. Bere hilobiko

lurrekin lan egiteak oihartzun asko eragin dizkit neu ere kazetaria eta irakaslea naizenetik. Eduardo Bleier (1927-1976-2019) nire aitonaren laguna zen eta, kasu horretan, samurtasunetik bihotz-ukitu nau. Ricardo Blanco (1938-1978-2012) sindikalista genuen, eta berekiko miresmena izan da mugiarazi nauena. Azkenik, soineko honek irudikatzen duen identifikatu gabeko gorpua guztiz astindu nau, emakume izateagatik eta erail zutenean haurdun zegoelako.”

Uruguai diktaturako estatu-terroismoa gaur egungo koiunturarekin lotu nahi izan duen arren, desagertutako bakoitzaren istorio pertsonalen arabera ehuntzen joan da proiektua. 196 dira (gutxienez) Uruguai diktadura militarrek desagerrarazi zituen pertsonak eta bakoitzaren nortasunaz eta ekarpenaz hitz egin nahi izan du. Obra beldurrezko istorio bat izatetik aldentzen saiatu den arren, diktadura militarrek gauzatu zituen gizateriaren aurkako krimenen izugarrikeriak presente egin eta salatze-ko premia izan du.

## AURKEZPENAREN LEKUAZ ETA DATAZ

Artelana ez du ustekabeen kokatu Montevideoko Kolonurreko Arte Indigenaren Museoa. Defentsa Ministerioaren egoitza han egon zen diktadura garaian, 1973 eta 1985 bitartean, eta leku horretan galdekatu eta desagerrarazi zituzten hamarnaka uruguaitar. Desagertuen memoria museo horretara ekarri izana, haien presentzia bertara itzuli izana, oso keinu artistiko esanguratsua izan da, justizia eskaera den aldi berean.

Artelana aurkeztu duen data ere ez da kasualitatea. Isiltasunaren Martxa historikoaren bueltan izan da, Madres y Familiares de Uruguayos Detenidos Desaparecidos (Atxilotu eta desagerrarazitako uruguaitarren ama eta senideak) kolektiboak urtero antolatzen duen mobilizazio nazionala. Uruguain eta Hego Amerikan Kondor Planaren testuinguruan bultzatu zituzten diktaduraren gertatutako desagertuen eta erailketak argitu daitezkeen eskatzen du





manifestazio jendetsu horrek *Ellos saben dónde están. Exigimos respuestas* (Haiek badakite non dauden. Erantzunak nahi ditugu) lelopean.

### IDENTIFIKAZIOA

“Amelia Sanjurjo 1936-1977-2024” dioen horma-irudiarekin parez pare, Montevideoko Errepublikako Unibertsitatean bildu den jendetzaren artean, gaurko egunez Madres y Familiares de Uruguayos Detenidos Desaparecidos elkarteak antolatutako omenaldi eta hiletako publikoak ekarri nau afixa honen aurrera.

Karteleko hiru datek eman didate atentzioa: lehen zenbakia Amelia Sanjurjo jaio zen urtea; Uruguaiako Alderdi Komunistako kide izateagatik diktadurako militarrek erail zuten urtea bigarrena; eta herrira itzuli den urtea hirugarrena. Hala sentitu baitu Uruguaiako gizarteak Ameliaren gorpua identifikatu izana.

Ekainak 6 ditu eta astebete besterik ez da pasa Amelia Sanjurjo Casalen gorpua identifikatu denetik Infanteria-

ko Hamalagarren Batailoian aurkitutako hilobien artean. Bi aste Manuela Aldabek gorpuzkiaren identifikazioa aldarrikatzen duen artelana plazaratu eta Isiltasunaren Martxa burutu zenetik. *En ella estamos todas* artelana eraldatu egin du historiaren bilakaerak eta memoria eta justizia aldarrikatzen dituzten militanteen borondate konprometitua. “Amelia Sanjurjo 1936-1977-2024” dioen kartela alboan du orain soinekoak.

“Lurperatu zutenek ez zuten esan non zegoen, ezta nor zen ere. Izenik ez zuen gorputz batekin egin dut lan eta, erakusketa zegoen bitartean, gaia jorratzen ari ziren zientzialariek nor den jakitea lortzean eta identitatea publiko egitean, badago, agian, ekintza psikomagiko bat, mundua eraldatzea posible dela sinesten jarraitzea baimentzen diguna. Iruditzen zait hori funtsezkoa dela artean. Bizi ditugun eremu guztietan ditugu mugak, artean ez. Arteak, giharra emango dion mugimendu politikoa atzean duenean, edozer du posible”, azaldu du.

### ETA ORAIN ZER?

Aldabek espero du jendea erakusketatik Uruguaiako diktadurak desagertutako izen-abizenen zerrendarekin joatea, Uruguaiako kontakizun historikoaren parte izan daitezen. Era berean, artelanaren lurreko “odol” hari horiekin jaitzen den esperantza sentsazioa eraman dezaten nahi du, hegan egiten duen eta lorez inguratuta dagoen soineko batekin amaitzen dena, memoria eta presentzia ariketa horretan. Bestalde, gorpua identitatea ezagututa, gertatu zena argituko duen ikerketa abiatzeko itxaropena du, Ameliari justizia egiteko.

Hurrengo pausuez galdetuta, Aldabek dio: “Orain, ziurrenik, Ameliarekin egingo dut lan, obra honetan ez bainekien Amelia Sanjurjo zenik. Hau izango da, orain bai, Ameliarentzako artelana. Bere lurra Oroimenaren Parkean dagoen lorategi txiki batera joango da, Montevideoko Oroimenaren Museora, han baitaude beste hobi lurrak, eta landareak haziko ditugu leku horretan. Amelia itxera itzuli da, familiara, herrira”. ●

# ARGIA

## BABESTEKO ARRAZOI

### 1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langleiona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

### 2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

### 3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

### 4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAN jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

### 5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

### 6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

### 7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

### 8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

### 9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

### 10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

### 11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

**TXIKITIK ERAGITEN** [argia.eus/eginargiako](http://argia.eus/eginargiako)



# “Desgaituontzat oso gertu eta oso urrun dago itsasoa”

Sentsibilizazio saioen, hitzaldien eta sare sozialen bidez aktibismo antikapazitista egiten du Juncal Cepedak (Irun, Gipuzkoa, 1986). Txikitan ez du erreferente desgaiturik izan, eta besteei laguntzeko eta erreferenteak sortzeko egiten du dibulgazioa. Sare sozialen bidez, *Oztoporik gabeko bainua* programaren –egokitutako bainu zerbitzuaren– garrantzia azpimarratu du.

 OLAIA L. GARAIALDE



OLAIA L. GARAIALDE

## Juncal Cepeda

**H**ondarribitik (Gipuzkoa) hamar minutura bizi da Juncal Cepeda. Itsasoa uste baino gertuago dagoela dirudi, baina duela zazpi urte bainatu zen lehenengo aldiz itsasoa, Hondarribian bertan. Hasieran, itsasoa bainatzeak beldurra ematen zion, baina poliki-poliki igeri egiten ikasi, eta txapelketetan ere parte hartu du: “Ez dut lehenago ikasi elbarririk uretara sartzeko izan ditugun oztopoengatik eta senideek ez dakitelako igeri egiten. Txikitatik ez nuenez ikasi, beldurra ematen zidan”.

Denborarekin beldurra txikituz joan da, eta egun, onura ugari ekarri dizkio hondartzak: “Ezagutu dut zein gaitasun fisiko landu ditzakedan autonomia gehiago izateko, gozatzeko eta erronka berriei heltzeko”. Horrez gain, itsasoaren usainak eta soinuek lasaitasuna ematen diote: “Ikusi nahi nuen zer

“Erakundeek dirua inbertitu beharko lukete soilik bainu egokituz arduratzen diren sorosleak egoteko”

ekartzen ahal zidan urak. Hasieran oso gogorra izan zen eta ez nuen gozatu, baina pentsatu nuen berriz saiatu behar nuela gozatzeko”.

*Oztoporik gabeko bainua* zerbitzua erabiltzen du hondartzan bainatzeko. Uretara sartzeko laguntza behar dutenentzako programa da, eta Getariako (Gipuzkoa), Hondarribiko eta Donos-

tiako hondartzetan eskaintzen dute, besteak beste. Cepedaren kasuan, hondarretik uretaraino joaten den aulki batean sartzen da uretara sorosle batzuen laguntzaz: “Ez badakizu igeri egiten, aulkian geratu zaitezke uretan. Lehenengo aldian sorosleek aulkitik ateratzeko esan zidatenean argi nuen ezetz, baina gero aulkitik atera eta flotagailu batekin aritu nintzen”.

Aldez aurretik abisatu behar da esateko zein ordutan eta egunetan bainatu nahi duzun. Gehienetan ez dago zerbitzua erabiltzeko oztoporik, baina bero handiko egunetan zailagoa izaten da, sorosle gutxiago dagoelako libre: “Sorosleek ohiko lana albo batera uzten dute bainu egokituetako zerbitzua emateko. Egun berotsuetan oso mugatuta egoten da zerbitzua”. Espreski zerbitzu hori emateaz arduratzen diren sorosleak egon beharko lirakeela uste



CEPEDAK UTZIAK

du Cepedak: "Erakundeek dirua inbertitu beharko lukete soilik bainu egokituz arduratzen diren sorosleak egoteko".

Azpiegituretan ere inbertitu beharko litzatekeela uste du. Izan ere, hondartza gehienak ez dira irisgarriak: "Pasabide onak eta lasai egoteko eta aulkia uzteko lekuak behar ditugu. Hondartza askotako pasabideak hondarretan ondoratuta gelditzen dira". Getariako hondartza aipatu du leku atsegina bezala. Aurten pasabide bat egokitu, eta itzaletan "lasai" egoteko txoko bat jarri dute. Horrelako egitasmoak hondartza guztietara zabaldu behar direla dio: "Tresnak baldin baditugu, erabili egin behar ditugu denok gozatu ahal izateko. Zergatik batzuek gozatu dezakete hondartzan eta beste batzuek ez? Desgaituontzat oso gertu eta oso urrun dago itsasoa".



### BEGIRADA LANTZEKO BEHARRA

Nabarmendu du aisialdiak denontzako irisgarria izan behar duela. "Berdintasuna lortzeko, aukera berdina izan behar ditugu". Gaineratu du norberak aukeratuko duela zer egin edo zer egin nahi ez duen; hala ere, probatzera animatu du jendea: "Nahiz eta ura ez gustatu edo hasieran beldurra eman, jendea animatu nahi dut probatzera. Uste dut geure partetik erresistentzia dagoela, ez garelako besteak bezala sartzen".

Horregatik, garrantzitsua da jendeak horrelako zerbitzuak ezagutzea eta gizarte osoaren begirada lantzea: "Uretan sartzen garenean, jendeak begiratu egiten gaitu. Agian ni ez naiz sartu zu bezala, baina zuk ere ikusi behar duzu nola sartzen naizen. Desberdintasunak ere ikusi behar ditugu. Nik aulkia behar dut, eta zer?". ●

### GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Besoak. Azken urteetan askoz gehiago erabili ditut. Txikitan uste nuen hor zeudela eman zizkidatelako, baina gero balioa eman diet. Uste dut ez dakigula zenbat balio duten. Besoak denetarako erabiltzen ditugu: igeri egiteko, besarkatzeko, jateko...!"

## PRAKTIKALDIA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

## Kazetari izateko asmotan

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**H**iru hilabeteko praktikaldia bukatzeaz dira Julen Ugartemendia Carcedo eta Manex Usarralde Garmendia lerrook idazten ari naizenean. Ekainaren 3an hasi eta abuztuaren azkenera arte aritu dira ARGIAko erredakzioan lanean eta haiekin hitz egiteko aukera izan dut, argia.eus webgunerako albisteak idazten ari diren bitartean.

Errenteriarra Ugartemendia eta Lazkaokoa Usarralde, kazetaritza graduak azken ikasturtea burutzen hastekoak dira biak irailean eta kazetari lanetan ikusten dute euren burua. Gradua amaitutakoan lan munduan murgiltzeko asmotan dira eta horri begira ARGIAko praktikaldia “baliagarri” izan zaiela diote. Errenteriarrek lehen praktikaldia du


eta honela dio: “Hilabete hauetan asko ikasi dut, esaterako, zenbait gairen tratamendu egokia zein den, nolakoa den erredakzio baten lan egiteko modua edo idazkera aldetik; garrantzitsua iruditzen zitzaidan kazetaritza lanbidean aritzea gradua bukatu aurretik”. Usarralde lehengo urtean *Berria* egunkarian aritu zen lanean eta “orain beste estilo bateko erredakzioa eta lan-taldea ezagutzeko aukera izan dut ARGIAN, txikiagoa eta, akaso horregatik, gertuko harremanak sentitzen direna”, azpimarratu du.

Aktualitateko gaiak landu dituzte batik bat argia.eus ataria elikatzeke. Goizeroko errutina, berbera: egun horretan webguneko erredakzioan lanean arituko diren lankideak elkartu, egun horretarako aurreikusita dauden

albisteak eta gaiak landu, eztabaidatu, lehenetsunak markatu, lanak banatu... eta idaztera. “Oso gai desberdinak jorratzeko aukera izan dugu ARGIAN eta hori asko gustatu zait, arlo jakin batera mugatu beharrik izan gabe, pixka bat denetik probatzeko”, azaldu du Usarralde. Ugartemendiak praktikak egiteko asmotan dabilenari esan nahi izan dio Lasarte-Oriako egoitzan topatu duela laguntzeko eta dakiena besteari erakusteko prest dagoen jendea, informazio-iturriak eskaintzen dituen eta akatsak zuzendu eta aholkuak ematen dituen.

ARGIAN kafea norberak berea hartzen du makinatik. Ez dago neskame eta morroirik. Praktiketako gazteek kazetaritza lanak egiten dituzte. ●






**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

# Panem et circenses

**E**rroma, K.o. 100. urte inguruan. Juvenal poetak zera jaso zuen bere X. Satiran: “Aspaldian, zehazki botoa nori saldu daukagunetik, herri honek politikarekiko interesa galdu du. Lehen buruzagitzak, sortak, legioak eta, finean, dena ematen zuen, baina orain agintariei egiten uzten die eta soilik bi gauza desio ditu irrikaz: ogia eta zirkuko jokoak”.

Erromako agintariak askoz lehenago hasi ziren ogia eta zirkua herritarrei eskaintzen; K.a. 140 urtean erabaki zuten lehenengoz behartsuenei garia prezio askoz merkeagoan saltzea. Janaria merkatu edo oparitzeak eta entretenimendua eskaintzeak herritarrak alienatzea zekarren Juvenalen ustez, haien espiritu kritikoa apaltzea, agintarien eskuzabaltasun faltsuarekin herria asebetetzea. Eroskerian eta populismoan oinarritutako estrategia hori boterea eskuratzeko bide eraginkorra izan zen urte luzez.

Julio Zesarrek, esaterako, garia ia oparitu egiten zien gehien behar zuten 200.000 hiritarrei. Jakina, gizonezko hiritar libreak ziren onuradunak, behar behar, esklaboek, libertoek eta emakumeek ez zutelako boto eskubiderik. Handik hiru mendetara, Aureliano-ren garaian (K.o. 270-275), 300.000 herritarrek bina ogi jasotzen zituzten doan egunero. Ogiaren bidez botoa erostea ez zen merkea, Italiar penintsulan nahikoa gari ekoitzi ez eta Inperioko hainbat txokotatik inportatu behar zutelako.



Inoizko erromatar zirkurik handiena, hiriburuko *Circo Massimo*, 1913ko ilustrazio batean.

Eta zirkuko ikuskizunak ere garestiak ziren. Soilik sarietan dirutza uzten zuten; koadriga lasterketa bat irabazteagatik 60.000 sestertzio jaso ohi zituzten garaileek. Diokles gidari ezagunak ia 36 milioi sestertzio irabazi omen zituen 42 urterekin erretiratu baino lehen. Baina garestiena obra publikoak ordaintzea zen, eraikinak berak eraikitzea, egokitzea, eta luxuz apaintzea. Iruña-Veleiako zirku aurkitu berria 280 metro luze zen eta 5.000 ikuslerentzako lekua zuen; zirku txikia zen. Tarracokoak, esaterako, 25.000 ikuslerentzako edukiera zuen, eta Italicakoak

80.000rentzat. Erromako *Circo Massimo* Iruña-Veleiako bikoizten zuen luzeran eta 150.000 lagun inguru hartu zitzakeen –Plinio Zaharrak 250.000ko edukiera aipatu arren, egungo historialariek uste dute kopuru hori gehiegizkoa dela–.

“Ogia eta zirkua” lokuzioak ez du gaurkotasunik galdu bi milurtetan, Juvenalek kritikatuakoa gobernuek oraindik ere erabiltzen dutelako biztanleak otzandu edota eskandaluak isilarazteko. Eta askok “zirku” hitza “futbol” hitzarengatik ordezkatzen dute, mezua oraindik eta argiagoa izan dadin. ●



PARAMOUNT PICTURES

## Naumakia ezinezkoa

Udazkenean estreinatuko den *Gladiator II* filmaren trailerra ikusgai dago eta hiru minutu eskaseko aurrerapenean dagoeneko akats edo lizentzia historiko bat agerian geratu da. Ridley Scoten filman naumakia edo itsas gudu bat egingo da Koliseoan. Ikuskizun garestia gutzira hirutan egin zen Erromako anfiteatroan, baina filma kokatua dagoen

garaian (K.o. 161-169) ezinezkoa zen joko zelaia urez betetzea, hamarkada batzuk lehenago Domizianok (K.o. 91-96) Koliseoan egokitzen lan batzuk agindu zituelako. Enperadoreak lurpeko galeria sare bat eraikiarazi zuen, hainbat puntutan zuzenean hondarrarekin lotuta zegoena. Handik aurrera ezingo zuten bertan naumakiarik egin. ●

## SASOITU

# IRAILEKO KOLORE LARANJAK



**AMAIA DIAZ DE  
MONASTERIOGUREN OSINAGA**  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

**Z**er behar du momentu honetan gure gorputzak? Kontzientzia hartu, gure ongizatean denborak, atsedanak, mugimenduak eta garaiko elikadurak duten eraginaz. Gure ingurune naturalak, jakintzaz ematen dizkigu urtean zehar behar ditugun elikagaiak eta, hala, elikagai freskoak, koloretsuak, urtaroakoak eta tokian bertan ekoiztuak, ekologikoak, kontsumitzea funtsezkoa da gure elikadurarekin berriro elkartzeko.

Irailean zaintza berezia behar dute pankrea, urdaila eta bareak. Horretan laguntzen gaituzte garaiko barazki eta fruta koloretsuek eta gozoek. Laranja koloreko elikagaiak betakarotenotan aberatsak dira. Pigmentu horiek ezin hobeak dira azala zaintzeko, antioxidatzaileak baitira. Barazki eta fruten kolore horiak adierazten du luteina eta zeaxantina duten elikagaiak direla: begiak babestea, azala zaintzea eta antioxidatzaileak lortzen ditugu. Gainera, poza pizteko eta nerbio sistemarako lagungarria da.

Janariak prestatzeko moduak ere garrantzia du, baporean egindako platerak barazki eta fruten ezaugarri nutrizionalak, bitaminak eta mineralak mantentzen ditu eta pigmentuek ez dute sufritzen. Bestalde, udako gehiegikerien ostein, gorputzari ondo datorzkio barazki krema, zopa eta barazki saldak. Barazki eta frutetan aberastu behar ditugu gure menuak.

Ariketa bat egitera gonbidatzen zaitzuet, natura eta urtaroaren erritmoa ulertzeko, sentitzeko, begiratzen eta entzuten hasteko: basoan murgildu, arboletara gerturatu, natura zure bizitzan txertatu. Nik arbola bat aukeratu dut: intxaurrendoa. Gertu daukat,



MONSTERA PRODUCTION

egunero ikusteko aukera dut.

Momentu honetan fruituak handitzen, heltzen ari dira zuhaitzean, harrigarria da nolako pisua hartu duten adarrek; jasaten duten pisua ikaragarria da. Hostoek kolore berde iluna dute, horiek fruitua babesten aritu dira orain arte. Intxaurrek adarretatik eroriko dira edo zuhaitzak botako ditu? Zikloa bukatzen ari da zuhaitza: udaberrian loratu zen udan fruitua emateko.

Ortuan kalabaza edo kuia eta pikua jaso ditut.

## KALABAZA EDO KUIA

Mamiaren kolore laranja pista ematen du: beta-karotenotan aberatsa da. Beste ezaugarri nutrizional batzuk dira potasioan, kaltzioan eta zuntzetan aberatsa dela. E bitamina, azido linoleiko,

burdin, zink eta kukurbitazinan ere jorria da.

Dietoterapian eta nutriterapian oso erabilgarria da.

Kuia haziak edo pipak gordinik edo txigortuta jan daitezke.

## PIKUA

Beroarekin fruta-arbola horren hostoek usain gozo berezia dute. Oroitzapenak dakarzkite: baratzea, siesta, gozoa, berdea, etxekoa, gertukoa, uda.

Garaian garaikoa eta urtaroaren erritmoraren jateko lehen pausoak ematen hasi gara artikulu honetan. Udazkena badator eta adi nago intxaurrendoa izango duen aldaketan zain. Eta udazkenean zer beharko dugu?...

Hurrengo artikuluan hitz egingo dugu horretaz. ●

# SU ARTIFIZIALAK



JOSEBE BLANCO

**B**itxia egiten zait oso askok su artifizialei dieten miresmena. Ikuskizunak sortzen duen itsutasun eta gorreria aukeran nonahi. Ni uxatu egiten nau giro piroteknikoak. Baina onartzea besterik ez daukat gehiengo batek horretan murgilduta bizi nahi duela; besteak beste, sistema oso baten makineria hori horrela izan dadin lanean ari delako, ezker-eskuin.

Su artifizialen politika Euskal Herrian hain zabaldua dagoen handinahi senarekin guztiz lotuta dagoela esango nuke –testosteronarekin ere bai, akaso–. Handikeriaren autobide zabal horretatik urrun leudekeenak ere batzen zaizkio segizioari, barru-barruan sentitzen dutelako piroteknariak gabe ez dutela zer ekarri, noren-gana heldu, eta bakarrik daudela.

Arrakasta sarreraren *online* salmentan neurtzen da: zenbat sarrera hainbeste

minututan. Aretoaren edukierak handia behar du; edo askoz hobeto: handiena. Haiek bete egiten badute, guk ere bai, ez baikara gutxiago, ez horixe! Ikusle eta entzuleek eszenatoki futuristan daudenen aurpegiak pantaila erraldoietan bakarrik ikusten dituztenean esan dezakegu: bai, badugu balioa. Pantaila erraldoirik gabeko plaza garaikideetan aritzen direnek abstraktu bezain zabal den panorama artistikoa osatzen omen dute.

Itzala menuaren prezioan eta itxaron zerrendan ez ezik, platerean exotikoak bezain *cool* diren jakien presentzia dartzatza, bertakotasunaren esentzia labeldunaren ukituarekin, ezinbestean. Koktel horrek kokatzen baikaitu mapan. Gastronomiaren abiadura handiko tren horretara igo nahi ez dutenak aldirietako trenetako anonimotasunera kondentuta omen daude.

Hologramen lilurapean ematen dugun denbora horretan, hemen eta hor, lurrean, alegia, bizitzak bere martxan eta desmartxan jarraitzen du.

Euripean igarotako egunek eta asteek ondu gabeko belazeak utzi dituzte, tomate eta piper urriko uda, zalan-tzazko fruta-arboletako uzta, eta salda bordelesaren salmentaren gorakada. Atzo entzundakoa jasota gelditu dadila: bazterretan eguraldiaren nahasmen-duak sortutako janariaren eskasiak, orain dela 100 urte, gosete ikaragarria zekarkeen.

Axaleko ondorioa izan daiteke: “Eskerrak mundu globalizatuan bizi garen eta jatekoa kanpotik ekar dezakegun!”. Sakonekoak lioke: “Ze desastre egin dugun 100 urteren buruan herri eta komunitate askotan elikadura burujabetza ezinezkoa izateko!”.

Jakin nahiko nuke nola bukatu su artifizialen lilurarekin. Nola helarazi su txikien bueltan itzultzeak egiten duela bizitza erreala posible; su txiki bat oparia izan daitekeela, eta badela.

Amata dezala euri langarraren jarraitzeak artifizioaren su itsugarria. Jan ditza herdoilak kapitalaren makineriak. Estal dezala goroldioak garapenak utzitako zaborra.

Bil gaitzala euriaren temak ukuilu txiki batean, ahots eta esku batzuen doinu eta erritmoan, bizitzaren ernamuinaernal dadin gure baitan, su txiki baten epelean. Bil gaitzala, berriz ere, beste ukuilu batean, orduan, ahotsek dakarzikiguten mezuak entzutera: adi, horiexek hitz egingo baitigute lurraz, bizitzaz eta bizi ezinaz, elikatzen gaituzten horien ahotan.

Bil gaitezen, gorputz txiki eta hilkorrok, sua piztera, neurriko piromania bizigarrian. ●



# ETXEKO KASTA



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**B**olada harroan da. Ondo harroan. Etxe ondoraino etorri zaizkigu bere arboladiak, ahukatediak. Ahukatea gero eta sukalde gehiagotan ikusiko duzu eta osasuntsua dela entzungo duzu barra-barra. Bere izenak dioen bezala, *Persea americana*, Ameriketatik dator, zehazki Mesoamerika deitzen den lurraldekoa dela diote. Ba omen dira bost bat mila urte etxekotu zutela bertakoek; eta euskaldunok duela zenbat urte ikusten dugu ba fruta dendetan? Egun, bera gabeko fruta erakusleihorik ez duzu topatuko.

Egia da denda leihoetatik sukalde jakin batzuetara, gero sukalde askotara eta hortik lurrera, zelai onenetarako urratsak urte gutxian eman dituela ahukateak. Duela berrogeita hamar urte inguru kiwiak (*Actinidia deliciosa*) egin zuen bidearen antzekoa, ez berbera; kiwiarena idi-uztarriaren abiadura-koa izan zen eta ahukatearena super-sonikoa da.

Era askotara da azkarra ahuka-teondoa. Jaiotzen, adibidez: nork ez du etxean ahukatearen hezurra uretan jarri eta landare berri baten sorrera ikuskizunaz gozatu? Etxe guztietako giroak egokiak zaizkio! Hazi ere airean hazten da, bizitzeko aparteko grina balu bezala, batez ere lurrean landatu ondoren. Ugaltezko ere ez du galbanarik, lau-sei urterako uzta nabarmena ematen hasten da.

Salmenta prezioa ere ez du motza, begiratu hurrena dendan. Horri helduta nekazari asko ari da ahukateondoa landatzen, isurialde atlantikoan eta batez ere itsas inguruan. Sagardo sagarrak (*Malus domestica*) edo antzeko bestee bano dezentez etekin hobea emango duen itxaropenarekin.

Fruta arboletan, bi gauza kontuan izan behar dira, nahi eta nahi ez, baldin eta urtera egindako lanaz damutu



nahi ez baduzu: zein mentuoin eta zein barietate aukeratu. Mentuoinek hemen izango duten jokabideaz eta gobernuaz ez dugu jakintza zipitzik ere, eta horrek saioak eta saioak egitera behartzen gaitu. Barietateak beste sagardotegiko bukoa dira. Gurearen antzeko klimatetan eta bestelakoetan barietateak duten jokaera ezaguna da, eta batez ere bi baldintzei begiratzen zaie: urtebitasuna, hau da, bai-urtea eta ez-urtea izatearen portaerari; eta fruituen heldutasun garaiari.

Hemen, batez ere, hiru barietateren aldeko apustua egin da: Bacon, Hass eta Fuerte. Hass da dendetan maizena topatuko duzuna: azala iluna eta zimurtsua du. Bacon batez ere Hass barietatekoak polinizatzeko erabiltzen da. Fuertek azal leun, bigun eta zuritzen oso erraza du. Gure etxean hori dugu eta oso ema-

lea da eta gozo-gozoa, nire ahosabaiak dioenez, onena.

Fuerte barietatea Kaliforniatik dator. Erdialdeko Amerikatik ahukate barietate dezente sartua zen bertan; jendeak, baita ere, hazitik sortutako txertakak lantzen zituen barietate berrien bila. 1913an ikaragarritzko izoztea izan zen Kalifornian, eta ahukateondo batek soilik eraman ahal izan zituen ondo samar izozte haren kalteak. Hortik datorkio izena: Fuerte ("Indartsu"). Zuhaitz hartatik datoz, txertatzearen txertatzez, munduan egun bizi diren milioika eta milioika Fuerte ahukateondo.

Aurten etxean jaten ari garen ahukate guztien hezurak ereiten ditut, simaupilaren aldamenen eta hurrengo urtean den-denak etxeko Fuertearen begiekin txertatzeko asmoa dut... Betor ahukatedi berria. ●

## BAZTAN

# ELIZONDOKO ZAHAR-ETXEAN MENU OSASUNTSU ETA JASANGARRIEN BILA



GARAZI ZABALETA

**A**urreko urte bukaeran Elizondoko zahar-etxearen kudeaketa publikatzeko jauzia eman zuen Baztango Udalak, eta geroztik, haren esku gelditu da egoitzaren antolaketa. Eskualdaketa horrekin batera, elikaduraren alorrean eraldaketa sustatzea izan da udalaren erabakietako bat. “Horrelako proiektu batek eskualdean eragiteko potentzialitate handia du, bai lehen sektorea berpizteko, baita dibertsifikazioa bultzatzeko ere”. Lorea Lizarreta zinegotziaren hitzak dira. Esku artean dutena erronka handia dela badakite, baina emaitza esanguratsuak lortzeko bolumen handiekin funtzionatzeak bere garrantzia duela ere bai.

## LEHEN LANA IRIZPIDEAK ZEHAZTEA

Ehun egoiliar inguru daude gaur egun Elizondoko zahar-etxean, eta bertako sukaldetan prestatzen diren menuak osasungarriago eta jasangarriago izateko trantsizioa da udalak bultzatu duena. “Hasteko, sukaldea nola zegoen ikusi genuen, lan nola egiten zuten, eta elikadura osasuntsu eta jasangarriagorako irizpideak zehaztu genituen: ahalik eta elikagai freskoenak izatea, hurbiltasunaren irizpidea kontuan hartzea, eredu ekologikoa bultzatzea, eta



abeltzaintzaren kasuan, estentsiboa izatea”, adierazi du Lizarretak. Kriterio horiez gain, EHKolektiboak ezartzen duen giza neurriko etxaldean irizpidea ere kontuan izan dute menu berriak diseinatzekoan eta osagaiak aukeratzekoan. Menuak nutrizio aldetik orekatuak eta adinduentzako egokiak izatea ere ezinbestekoa da.

“Trantsizioa ez da erraza izan, ekainean hasi ginen, lehenik gosari, hamaiketako eta merenduekin: esnekia, zukuak eta konpotak, ogia... Horrelakoak sartu genituen”. Lehen pauso horren ondoren, abuztuan ekin diote gainerako otorduak ere irizpide berrien arabera prestatzeko proba pilotuari. “Barazkiak, arrautzak, fruta eta, orokorrean, elikagaien familia guztietako ekoizleak sartu ditugu. Bertako ekoizleekin osatzen ez dena Ekoalderen bidez lortzen dugu, eta haragi eta arraina-

ren kasuan, tokiko merkataritzarekin ari gara lanean”, dio Lizarretak.

## LEHEN SEKTOREAREKIN ELKARLANEAN

Menuak eskualdeko produktuen eskaintzaren eta sasoikotasunaren arabera antolatzeko, ezinbestekoa izan da tokiko ekoizleekin eta elikaduraren bueltako elkarteekin lankidetzak. “Lehen sektorearekin eta Cederna Garalurrekin lanketa handia egin behar izan dugu, Baztan-Bidasoa aldeko hamar bat ekoizle hartu dute parte prozesuan. Sektorearen egungo errealitatearen argazki bat egin dugu, nolabait”. Lanketa horretan, sumatu dute egoitzako beharrik asetzeko barazki eta fruta ekoizpen falta dagoela eskualdean. Hutsuneak identifikatzea eta etorkizunean sor litezkeen proiektu berriei pistak ematea ere bada proiektuaren helburuetako bat.

“Proba pilotua da hau, joanen gara ikusten nola doan. Formazio saioak eta hitzaldiak ere egin ditugu zahar-etxeko langileekin, egoiliarrekin, familiekin... Eta, momentuz, erantzun ona izaten ari da”, dio zinegotziak. Egoitzako sukaldeak potentzialitate handia duela jakitun, etorkizunean bailararako sukalde zentral bat sortzearen ideia ere hor dago. Pausoz pauso eta pixkanaka egin beharreko bidea izanen da. ●

### GASTEIZ

EKAINAK 22  
Larunbata

### ELORRIO

UZTAILAK 7  
Igandea

### ZIGOITIA

UZTAILAK 27  
Larunbata

### ZARAUZ

ABUZTUAK 23  
Ostirala

### ZUMAIA

ABUZTUAK 30  
Ostirala

### DONOSTIA

IRAILAK 7  
Larunbata

### ORERETA

IRAILAK 14  
Larunbata

### ALGORTA

IRAILAK 14  
Larunbata

### ZERAIN

IRAILAK 22  
Igandea

### MUNGIA

IRAILAK 28  
Larunbata

### GASTEIZ

URRIAK 5  
Larunbata

### DURANGO

URRIAK 5  
Larunbata

## UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK

Babeslea / Financiado por:



Departamentu Berdintasuna  
Ekoizpena eta Ingurumenaren  
Ekoizpena eta Ingurumenaren  
Ekoizpena eta Ingurumenaren

Euskadi, auzolan

EUSKO JAURLANITZA  
GOBIERNO VASCO

Europar Batasunak  
kofinantzatuta



“ ”

# Gure arbasoek zerbait ikusten zuten guk ikusten ez dugun lekuan

Jon Mentxakatorre

Mondragon Unibertsitatean egiten du lan Jon Mentxakatorre galdakaoztarrak, ikerlari eta irakasle, mitologiaren bueltan hein batean. *Euskal ahozko ipuinak eta lurpeko eremua. Antologia eta azterketa* lana argitaratu du (Labayru Fundazioa, 2023). Solasean hasi aurretik, etxe inguruko mendi, baso eta txokoak erakutsi dizkigu.

 MADDI SARASUA LASKARAI  ARGIA / CC BY SA

## Hasteko, zer dira mitoak? Eta zer mitologia?

Mitoe grezierazko *mythos* hitzetik dator, eta normalean erabiltzen dugu narrazio edo kontakizun moduan. Baina badauzka beste bi adiera handi: bata da hitza bera, eta bestea isiltasuna. Mitoak beti kontaktzen du zerbait, koordinada espazio-tenporaletatik pixkatxo bat at dagoena, transzendentziaren munduan sustraiak sartzen dituena. *Mythos* hori lotuta dago misterioarekin. Isilik gertzen gara, zerbait harrigarria ikusten dugunean. Gero, etxera itzultzen garenean, hitza ematen diogu: “Basajauna, lamia edo dena delakoa agertu zait”. Hala aipatzen dute informazio guztiak: “Irten egin zait”. Mitoe da narrazio bat dimentsio transzendentea daukana, edo dimentsio transzendentearen berri ematen duena. Eta mitologia da mitoen gaineko zientzia, mitoen gaineko azterketa.

## Eta zure lana non kokatzen da?

Mitologia lan ona egiteko mitoe guztiak egon behar dira mahai beraren gainean. Horregatik, lehenik eta behin, egin behar dena da ahalik eta material gehien bildu eta antolatzen eta aztertzen hasi. Mitologiara heldu aurretik iristen gara mitopoesiara. Hor ikusten duguna da mitoe horietan zelango formulazio berezia dagoen, kasu honetan, geure herriaren bitartez. Eta nola formula edo esaldi jakin batzuk, edo transzendentzia hori artikulatzeko modu berezi batzuk, errepikatu egiten diren. Zer da mitopoesia? Transzendentziaren dimentsio hori narrazio poetikoaren bitartez antolatzeko joskerarekin berezia. Egin dudana lana horraino heltzen da eta pixkatxo bat abenturatzen da azterketa osoan, mitologiaren arloan, epilogoan. Lan honen gainean egin beharko genukeena da mitologia: ezagutza. Batzuk pasatzen

dira batetik bestera, mitoe gutxi batzuetatik mitologiara, erdiko lana egin gabe, batzuetan euskaraz jakin gabe... Ikusten nuen lan hau ezinbestekoa zela, horixe da arrazoia.

## Beraz, mitoak ez dira gaur egun zientziak azal ditzakeen gauzez ari. Beste zerbaitez ari zaizkigu?

Zientziak azkenengo bost mendeetan erabaki du positibista izatea. Begi hutsez ikusten dena, neurtu egiten dena: pertsona bik ekai berarekin gauza berbera ikustea begi hutsez eta emaitza berbera izatea. Hori zientziaren hautu ideologikoa da. Garai batean Baconek eta hainbatek hala erabaki zuten, zorroztasuna eta etekina irabazteko, ikuspegia murriztu behar zela. Orduan, gaur egun, begi hutsez ikusten ez den oro zientziatik at geratzen da. Psikologia, adibidez, biologiatik zenbat eta gertuago egon,

hobe. Eta gizarte zientziak estatistika-  
ra eta matematikara lerratzen badira,  
hobe. Kuantitatiboa, beraz, kualitati-  
boaren aurretik. Baina ahoz, irudimen  
biziz eta tradizioz bizi izan da herria;  
gure aurreko guztiak horrela bizi izan  
ziren, lamiak eta basajaunak agertzen  
zitzaizkien. Jende hori ez zegoen burutik  
jota. Nire ustez logikoagoa da pentsatzea  
haiek zerbait ikusten zutela guk ikusten  
ez dugun lekuan. Ez dut esan nahi ipui-  
nak bete-beteen edo itsu-itsuan hartu  
behar ditugunik, ez delako horrela. Hau  
da, mitoek kontatzen dutena ez dugu  
espero behar begi hutsez ikustea.

### **Zein gabezia dauzkagu gaur egun hori ulertzeko, mito horietara iristeko?**

Alde batetik, Euskal Herrian gertatu  
zaiguna da modernitateak eskatu di-  
tuen aldaketa handiak, aldaketa poli-

tiko, teknologiko, erlijiosoak, bospasei  
mendetan etorri beharrean, gutxi go-  
rabehera XX. mendean guztiak etorri  
zaizkigula. Hegoaldean 1936ko gerra,  
gero 40 urteko diktadura, Iparraldean  
Bigarren Mundu Gerra, Aljeriako gerra,  
eta lehenago Lehen Mundu Gerra, Primo  
de Riveraren diktadura eta beste hain-  
bat kontu, bestelako biolentzia eta za-  
palketak... Horrek sortu du gure barne  
apurketa bat, eta sortu du belaunaldi ez-  
berdinen arteko transmisioa apurtzea,  
edo behar besteko patxadaz eta sintesi-  
siz egin ez izana. Material hau sutondoan,  
mendian lainoan edo basoan ilunetan  
pixkanaka-pixkanaka egositakoa da.

Kontuan izan behar dugu azken men-  
dean bizi izan dugula sekularizazio pro-  
zesu handi bat. Ez da Mendebaldean  
Eliza baztertu dugula, gehiago da di-  
mentsio transzendente horri pixkanaka  
bizkarra eman diogula. Horrekin irabazi

dugu autonomia handia, lorpen zienti-  
fiko, teknologiko, politiko, ideologiko  
handiak. Baina gero eta urrunago gaude  
hartatik, gero eta gorrago; ezintasun bat  
daukagu iraganeko hori ulertzeko. Eta  
ezinbestekoa da esatea: mitoen material  
hau ez da gure gaur egungo mundukoa,  
ez du sortu Hollywoodek; baizik eta tra-  
diziotik eta ahozkotik dator, eta mate-  
rial hau sortu duen herriak bete-beteen  
sinesten zuen edo bizi zuen. Baina guk  
pentsatzen badugu lelokeriak direla...  
Gure herriarentzat hau inportantea ba-  
zen, guk ez dakit zer lanketa egin behar-  
ko dugun, baina hurbildu gaitezen begi-  
rada horretara, azter dezagun, eta egin  
dezagun sintesi lana. Gertatzen zaiguna  
da oso mundu teknozientifikoan bizi ga-  
renez, begi hutsez ikusten ez denari ba-  
lio ontologiko gutxiago ematen diogula.  
Ametsak, irudimena, sentipen garbiak,  
horiek ere gure parte dira, baina delega-



tuta dauzkagu beste maila batera. Gaur egun minusean ditugu, zero azpitik, baina lehen plusean zeuden.

**Zein balio dauzkagu hemengo mitoetan? Zer ekarpen egin diezagukete?**

Alde batetik, daukaguna da gure arbasoen irudimen bizia osatu duen materiala. Zibilizazio batek badauzka bere balioak, ezta? Duintasuna, ohorea... Baina zibilizazio batek, batez ere, daukana da irudimen partekatu bat, bai pozik eta bai triste gaudenean, gertakizunei esanahia aurkitzeko zentzuz jositako mundua. Iruditegi hori, 2.000 urtez edo 2.500 urtez egon dena, Bibliarekin hasi, lan klasikoekin, eta gero herriz herri dagoen mitologiarekin egin dena, hori apurte egin zaigu. Berrosatzen ari gara filmekin eta horrelako kontuekin, baina irudimen hori joan egin zaigu. Material honek balio du irudimen horretara berriz ere hurbiltzeko. Beste aldetik, balio du gure *corpus*-a izateko, bertsoak eta beste gauzak bezala, herriak mitopoesia nola egin duen ulertzeko. Gero, mito horiek

“ ”

***Gaur egun, gure burua ezagutzeko bideak edo teknikak bilatzen ditugu, gure ongizaterako, gizaki isolatu moduan***

erakusten dute geografia mitiko bat.

Gaur egun joaten gara Anbotora eta ez dugu ezer ikusten. Begi hutsez ez. Lehengoek begi hutsez ere ez; ikustekotan barne begiz egiten zuten. Pixkanaka-pixkanaka, gogoeta eta errepikapen handiz, su txikitan egositako gauzak dira, eta su txiki horren ondoan egosi dira beste hainbat gauza: gure herriaren itxaropenak, desioak, balioak, kezak, ardurak, pozak eta negarrak. Herri-jakintzan aurki ditzakegun balioak, giza duintasuna, komunitatearen lehentasuna, edo ohorea, emandako hitza, elkar-

tasuna... Ez dut esan nahi bete-betea, guri-gurian, aurkituko ditugunik mitoetan, baina mitoak gure herriak izan duen gizabide horren beste isuri edo emari batzuk dira, mundu horren emaitza edo ekoizpena. Orduan balio digu giro horretara hurbiltzeko eta giro horretan sortzen ziren zapo edo usainak ulertzeko.

**Gizabidea hitza darabilzu. Zein ziren lehen gizaki hobeak egiteko zeuzkaten bideak?**

Gauza bakarra esango dut: uste dut horretarako lehen jendeak gaitasuna zeukala, gaur egun gero eta gutxiago daukaguna, norbere baitara begiratzeko. Esaldi borobila da [Jose Migel] Barandiaranek eman ziguna, nolabait esan, euskal pentsamenduaren eta euskal senaren hazia. Barandiaranen esana ondo aintzat hartu behar dugu, lan handia egin zuelako, eta ikerketan 60-70 urte egin arte ez zuelako hausnarketarik edo interpretaziorik plazaratzen. Ea gaur egun nork itxaron dezakeen hainbeste bere ikuspegia emateko. Berak esaten zuen esaldi borobil hori, “ez gara gure





baitakoak". Lehen jendeak bazeukan gaitasuna bere baitara begiratzeko.

Gaur egun, beharbada, geure burua ezagutzeko bideak edo teknikak bilatzen ditugu, gure ongizaterako, gizaki isolatu moduan. Baina mitoek beti erakusten digute osotasun handi baten parte organiko –eta ez mekaniko–garela.

Irudimenak lau fase dauzka. Lehenengo da sistema psikosomatikoak egiten duena: nik orain ikusi egiten dut edalontzia, mahaia... Irudiak bere horretan pertzibitzea. Irudi horiek gorde daitezke memorian, oroimenean, eta handik ekarri, irudi horiek erakusten dutena aurrez aurre ez daukagunean; hori da bigarren maila, irudimentzat hartu ohi duguna. Hirugarrena: oroimenean eraldatu egin daitezke, irudiak nahasi egin daitezke, edota berriak sortu, baina beti aldeztetik ezagutzen den horretan oinarrituz. Eta bada laugarren maila bat, mitoekin lotuta dagoena. Lehengoek esaten zuten mitoetan dauden irudimenezko izakiak "irten" egiten zitzaizkiela, begitandu egiten zitzaizkiela. Hau da, aldeztetik bertan izan gabe, edo norberak eragin gabe, gogora agertzen zitzaizkiela argi eta garbi. Lehengo jendea egon zen horretara irekiago: errealitatea begitandu egiten zitzaion, haiek ez zuten hainbeste irudikatzen. Ekintzaren subjektua oso bestelakoa da batean edo bestean.

### **Nola ikusten duzu gaur egungo gizartea? Jendeak transzendentzia horren falta sumatzen du ala nahikoa zaizkio dauzkan erantzunak?**

Aditu guztiek indikadore guztiakin erakusten dute. Gizakia gizaki da galdera handiak egiteko gai delako: nondik dator bizitza, nor nintzen jaio aurretik, zer dago heriotzaren ondoren... Bizitzako momentu edo gertakizunen arabera, edo adinaren arabera ziurrenik, erantzunak ez dira berberak, edo erantzunek ez gaituzte berdin asetzen. Baina galderak beti dira berberak, berdin da zein garaitan, zein tokitan, inork galdera horiek guri helarazi gabe, galdera horiek erne egiten zaizkigu. Horrek erakusten du antropologikoki, ontologikoki, gu irekita gaudela begi hutsez ikusten dena baino gehiagora. Beste kontu bat da gaur egun nola ohituta gauden galdera horiei erantzutera. Oro har ez diegu arretarik jartzen, ez zaigu interesatzen. Baina galderak egiteko gai gara,

“ ”

## ***Gizakia gizaki da galdera handiak egiteko gai delako. Baina erabaki dezakegu erantzunik ez ematea, edo erantzunak asetzen ez gaituelakoan, galderak zentzurik ez daukala esatea***

eta momentu batean galderak indar handiagoz hasten zaizkigu ate joka, ingurukoren bat galtzen dugunean, heriotzaren atarian... Gaur egun, zoritxarrez esango nuke, galdera unibertsal horien aurrean, gero eta erantzun indibidualagoak ematen dira. Galderak egiteko gai gara, baina erabaki dezakegu, baita ere, erantzunik ez ematea, edo erantzunak ez duenez galdera erabat asetzen, galderak zentzurik ez daukala esatea. Hori izango litzake jarrera agnostiko bat.

Begira, XX. mendearen punturik beltzenean egon zen autore bat, Viktor Frankl. Auschwitzten eta beste kontzentrazio esparruren batean egondakoa, bizirik irten eta konturatu zen jendea muturrera eramaten denean, bizirik eta bere onean jarraitzeko gai dela bere baitako aberastasunaren arabera. Murrerako egoeretan, fisikoki osasuntsu egotea baino gehiago, pertsonak behar duena da zentzuaren eremu horretara irekita egotea.

### **Gaur egun gauden puntuan egonik, zer egin beharko litzatekeela esango zenuke?**

Uste dut antropologia berri bat behar dugula, gizakiaren gaineko ulermen sintesi berria, aurretik etorritako horri, azkenaldian bizkarra eman diogunari ere lekua eginda. Mundu hori baztertu beharrean, artikulazio egokiarekin, eguneratuta, sintesi bat, berriz ere su txikitzen hori egosi. Berriz ere gai izan gaituzte berreskuratzeko koordinada horiek: gure itxaropenak, desiorik argienak, ametsak, maitasunak, gorrotoak egon daitezkeela adierazi sakontasun edo ortzimuga zabalagoen baitan... Ze-

ren horrek ekarriko bailituzke galdera handiak, Immanuel Kantek-eta egiten zituztenak –zer jakin dezaket, zer egin dezaket, zer egin behar nuke, zer itxaron dezaket–, oso desberdin erantzutea.

Gaur egungo munduan: zer egin dezaket? Ikasi eta lanik ahalik eta egokiena izan. Zer egin beharko nuke? Ahalik eta opporraldi ederrenak izan eta erakutsi sare sozialen bitartez ahalik eta gehien. Eta zer itxaron dezaket? Ba ezer ez, bizitza hau ahalik eta gehien luzatzea. Oso ibilbide laburreko erantzunak dira.

### **Tolkienen inguruko tesia egin zenuen, filosofian.**


*Eraztunen Jauna* eta haren inguruko legendarium oso bat idatzi zituen Tolkienek. Oxford Unibertsitateko irakasle izan zen. Katedra bi izan zituen, antzinako hizkuntzetan eta literaturetan aditu. Hogeitabat hizkuntza zekizkien. Berak egin zuena izan zen literatura eta hizkuntza zahar horietan aurkitzen zuen zentzu gehigarri hori, zentzu liluragarri hori, esploratu. Zer izan zitekeen gaur egungo Atlantikoko kostalde honetan, eguzkia sartzen den tokirantz bizi den herrikoa izatea, pertsona izatea? Tolkienek egin zuena da gure Mendebaldeko zibilizazioaren iraganeko aro oso bat irudimenezko maila berri batean esploratzeko saiakera. Historiaren mailan ez da egia, baina irudimenaren mailan bai, sentsibilitate, sustrai, eta antzinako literatura eta hizkuntzetatik egiten den sintesi-saiakera berri bat delako.

Zeezer egon behar da haren lanean. XX. mendearen bigarren erdian gehien saldu eta irakurri zen liburua, edo gehienetarikoa, *Eraztunen Jauna* izan zen. Oso materialistak gara, eta kontxo, gehien irakurtzen dena horrelako liburu bat da. Zer dago liburu horretan? Badago zerbait. Diskurtsoaren bidez beharrean, erakutsi zuen artearen eta edertasunaren bidez. Sekularizazioarekin batera etorri zen, Max Weber eta horiek guztiak, liluraren galaraz, desliluratzeaz, hitz egiten zuten. Jatorrizkoan oso polita da, "abestitan edo hitz-harrigarritan sartu" esan nahi du. Kantatutako eta poesiaz jantzitako mundua liluragarria da, eta gu bizi ginen, gure aurrekoak bizi ziren, ahozko mundu batean, liluragarria den mundu horretan. Abesteari utzi diogunez, bihurtu garenez beste modu batekoak, munduak bere lilura galdu du. Baina gu, oraindik ere zorionez, liluratzeke gai gara. Irekita gaude horretara. ●



## Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															



IBAI ARRIETA

## Sudokua

ERRAZA

	6		9			2	3	8
		5		3	1	6		4
		9					1	
4	3	8	2	6				1
9					8	3	6	2
6	1		3		7	8		
		4		2	3			6
2			5	7			8	
1	7	3	8		6		2	5

ZAILA

3		2		9				6
9							2	
4				8	3	5		
			8					5
			9	6		3		
6					2		1	
	3	7					5	
	8		1	7				
5				2				4

**EZKER-ESKUIN:**



1. Ipazterko hondartza, Bizkaia. / Abereei janaria jartzen zaien egurrezko ontzia.
2. Berak. / **Argazkiko abeslaria.**
3. Nafarroako herria.
4. Aisatu.
5. Nafarroako herria. / Errekato.
6. Anfibio mota, uretan igerian eta lehorrean jauzika ibiltzen dena. / Okertzera behartu.
7. Gelditasunez, astiro. / Gogo biziz, irrikaz.
8. Oraindik. / Saguzarra.

**GOITIK BEHERA:**

1. Abisu, adierazpen. / Toki batean zehar gorantz joan.
2. Su, lama. / Herdoil.
3. Arau, lege.
4. Ikara, dardara.
5. Kontsonante errepikatua. / ... situ, zerbait gertatzen edo egiten den tokian bertan.
6. A hirutan. / Arras, zeharo.
7. Gisako, pareko.
8. Trajeak egiten dituen jostun.
9. Kriptonaren ikurra. / Urtearen hamargarren hila.
10. Gipuzkoako udalerria. / Hutsegite baten erantzukizun, kulpaa.
11. Kaltzio oxidu.
12. Loaz mintzatuz, astuna ez dena.
13. Sakatu aditzaren infinitiboa.
14. Gaizto, oker.
15. Argazki baten azpian jartzen den testua.

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Eroritako hostoak	<b>ORBEL</b>
Ihar	
Zeken	
Klariona	
Gogor	
Enea	
Hobera	
Gizon emaztearekiko	
Neu, nihaur	
Niri	
Tontor, punta	
Oinaren azpia	
Loreen hauts	<b>POLEN</b>

**EBAZPENAK**

ATSOITZITZA  
BEREZ ETORTZEN DENA,  
EZ DA BEREZ JOATEN.

5	6	9	3	2	8	1	7	4
2	8	4	1	7	5	6	3	9
1	3	7	6	4	9	8	5	2
6	4	3	7	5	2	9	1	8
8	2	5	9	6	1	3	4	7
7	9	1	8	3	4	2	6	5
4	7	6	2	8	3	5	9	1
9	5	8	4	1	6	7	2	3
3	1	2	5	9	7	4	8	6

**ZAILA**

1	7	3	8	9	6	4	2	5
2	9	6	5	7	4	1	8	3
5	8	4	1	2	3	9	7	6
6	1	2	3	5	7	8	4	9
9	5	7	4	1	8	3	6	2
4	3	8	2	6	9	7	5	1
3	4	9	6	8	2	5	1	7
8	2	5	7	3	1	6	9	4
7	6	1	9	4	5	2	3	8

**ANAGRAMAK**

**ERRAZA**

- ESKER-ESKUIN: 1. OGELA, ASKA, 2. HARK, ANARI, IGEL, OKERRARAZI, 7. GELDIRO, IRRIKAN, 8. ORAINO, GAUENARA.  
 GOITIK BEHERA: 1. OHAR, IGO, 2. GAR, UGER, 3. ERREGELA, 4. IKARALDI, 5. RRR, IN, 6. AAA, ORO, 7. ANTZOKO, 8. SASTRE, 9. KR, URRIA, 10. AIA, ERRU, 11. KARE, 12. ARIN, 13. SAKA, 14. TZAR, 15. OINA.  
 ERRAZA: 1. OHAR, IGO, 2. GAR, UGER, 3. ERREGELA, 4. IKARALDI, 5. RRR, IN, 6. AAA, ORO, 7. ANTZOKO, 8. SASTRE, 9. KR, URRIA, 10. AIA, ERRU, 11. KARE, 12. ARIN, 13. SAKA, 14. TZAR, 15. OINA.

# Xedea eta fedea

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Sargoriari bizirauten saiatzera egin dugu kostalderantz, husten zihoan hondartzan bainua hartu, afaldu eta Santa Klara eguneko kontzertuak ikustera. Bidean topatu ditugunen argibideei segita, txankletak orpopean eta mugikorreko linternak eskuan abiatu gara errepide bazterreko eskaileretan gora. Eskuineko aldetik datorren olatuen soinua bat eginez joan da muinoaren tontorretik entzuten den musikarekin. Hasita dago kontzertua, iragarritako orduak jo aurretik.

Bi eraikin eta ermita nano batek osatzen dute Ondarroako Santa Klara; noizbait fede kristauaren izenean erakitakoak bestelako sinesmen batzuek biziberritzen dituzte orain. Zuhazpean, ermitaren aurrean dago eszenatokia, euskarri kuriosoez lagunduta: moztutako enbor zatiek eusten dituzte baffleak, eta etxeko altzari zaharrez egindako egitura batek sintetizadorea.

Herriko Hil taldearen ondotik, Bilboaldetik etorritako Uger taldea ari da oholtzan, 50 pertsona inguru begira ditzutela. Rock alternatiboa abizenarekin irakurri ahal izan ditut kartelean, punk rocka ere jarri izan diote sarri. Abizena jartzea zail den talde horietako bat izan daiteke, askotariko influentzia musikaletan egiten baitute igeri. Niretzat, barruko zarata isilarazteko, ukendu lez erabiltzen ditudan musika taldeen zerrrendako bat da Uger –abizen luzeegia eta neureegia da, badakit–. Besteak beste, lau lan luze osatu dituzte zortzi urteko ibilbidean, eta euren dituzte Fugazi, New Order, Marmol, Joy Division, Nirvana, Sonic Youth edota Anari.

Leku berri bezain berezi batean kokatzeko lanak eta aspaldi ikusi gabeko lagun agurrak tarteko, kosta zait, hasieran, arreta kontzertuan ezartzea. Baina lehen aldiz entzun nuenean egin bezala, harrapatuta geratu naiz *Denbora* abestiaren instrumentalean. *Izana izenpean*, *Bost* eta *Fedea eta xedea* kantekin jo dute goia; eta lur hartu, berriz, *Rosales*-ekin. Zuzeneko indartsua osatu dute lan zaha-



rrak, berrienak, tartekoak eta bertsioren bat nahastuta.

“Ugerrak jaten duen zerraldo erraldoia da Bilbo”, idatzi zuen Sonia Gonzálezek. Zerraldo erraldoiaren barrunbeetatik datorren boskoteak, kontzertua amaitzeko, bertan bizirauteko haien formula konpartitu digu. Ostean datozen elektronika doinuei bide emanez, lokalean findu duten esperimendu bat

## UGER

**NOIZ:** abuztuaren 11n

**NON:** Santa Klara ermitan  
(Ondarroa)

oholtzaratu dute, “gustuko duguna egingo dugu, ugertuko baikara” abestu eta Santa Klara dantzan jarrita.

Ugertuko gara, bai. Baina, bitartean, gustuko duguna egingo dugu; hiri herdoilduak zein itsasertzeko muinoak musikaz bete eta udako gau epeletan txankletak basatuta elkar topatu, denbora eta ezlekuak geure egiteko. Hortan ere badatza gure xedea eta fedea. ●



## LIBURUA

# Zapata pila!



SUSA

## ANTZERKIAREN LABIRINTOAN I ANDER LIPUS

EHAZE ETA SUSA

### AMAIA ALVAREZ URIA

**A**nder Lipus antzerkigileak EHAZE eta Susarekin argitaratu ditu bere autobiografia teatrala eta antzerkiari buruzko argitalpenak. *Antzerkiaren labirintoan I. Bitakora koaderno* eta *Antzerkiaren labirintoan II. Artedrama baten bila* izenburuak ipini dizkie bi liburu horiei. Oraingoan lehen aleari buruzkoak ekarriko ditugu hona.

Hasierako eta amaierako hitzekin batera, liburua bere bizitzako etapen eta bizilekuen arabera egituratuta dago, ziklo bat osatzen dutenak: Markina-Xemein (1971-1990), Madril (1990-1996), Bilbo (1996-2005), Berriz (2005-2020), Markina-Xemein (2020-2021). Azken atalari *Amaraura* izena ipini dio eta bertan bertsoak, dantza, musika, arte bisual-plastikoak, eta poesia agertzen dira, aurretik azal-

dutako antzerkiari buruzkoen osagarri.

Atal bakoitzean, bizi-etapa bakoitzean, gertatu eta aurkitutakoak testu laburren bidez aletzen ditu. Pasadizoak eta gogoetak tartekatzen dira oso bizi, mamitsu, guri elkarrizketa batean oroitzen esanguratsuen kontaketa egongo balitz bezala; tartekako galdera eta harridura ikurrek egilearen ardura eta gogoia erakutsiko dute.

Ez da autobiografia soil, memoria ariketa ederra da. Euskal antzerkiaren historia garaikidea ezagutu nahi duenarentzat biziki gomendagarria. Izen-abiaren, termino eta mugari segida oparoa agertzen da, bere irakasle eta bidaiari aitortzen egiteko, mende aldaketako euskal teatroaren argazki panoramikoak erakusteko, eta Ander Lipusen ibilbide eta ekarpenaren inguruan jarduteko.

Iñigo Ibarra *Ander Lipus* ezagutuko dugu, oztopo-lasterketa batean dena ezagutu eta bere bidea aurkitu nahi izan duen euskal sortzaile eta eragile sutsua. Berarekin gurutzatu diren antzerkizale askoren berri ere izango dugu: bere hastapenak Markina-Xemein, Madril eta Indian; Bilboko bakarkako eta taldekako esperimentazioak; Aulestiko Artedrama plataforma eta euskal komunitatearen ingurukoak...

Antzezlanaren aurretik aktoreei "kaka pila" esaten zaie, publiko burgesaren zaldi-gurdien zaldien kaka pilaren arabera jende kopuruari begira. Baina Lipusek nahiago du Indiako atari aurreko zapatei erreparatu: "Antzerkiak herriarekin egon behar duelako". Zorionak, Lipus, eta eskerrik asko egindako lan eskergatik! ●



MUSIKA

## Erre ezin dena, bueltan dator



IKER BARANDIARAN

**B**adira 25 urtetik gora Kataluniako jatorria daukan eta HHH hardcore talde aitzindariaren sortzaile Alex Montiel Euskal Herrira bizitzera etorri zela. Hemen, zerotik, 25th Coming Fire taldea jarri zuen martxan, eskola zaharreko hardcore-punka eta AEBetako korranteak batu eta bere egin zituena. Luzaroan aritu ostean, utzi egin zuen duela urte gutxi.

Baina pandemiaren lozorro luzean, beste askok bezala, denbora-pasa gisa kantuak idatzi eta grabatzeari ekin zion Montielek. Kantu lasaiagoak idazteko saiakera egin zuen, baina, ezin ukatu, hardcore-punka DNAn dauka gitarrat jotzaileak betidanik. Kantu zirriborroak hainbat musikari lagunei bidalita, ha-

rrera beroa jaso zuen, eta baita ere, aurrera egitekotan, parte hartzeko haien eskaintza. Esan eta egin: Euskal Herriko, Kataluniako eta... AEBetako musikariek borobildu dituzte kantuok. Ahotsaren ardura Poison Idea taldeko Jerry A.k hartu du, eta hain nabarmena da bere nortasuna, ezinbestez pisu handia dauka kantu guztietan.

*3 bells chime* hardcore-punka da, iluna, malenkoniatsua eta pisutsua. *The game*-k NYko hardcorearen sarrera badu ere, hardcore melodikoan barneratzen da eta gitarra oso (hard)rockeroak ditu. *Music makers* ere hardcore melodikoa da, baina oso bizia. *What's your name* hard-rock gisan iratzartzen da, baina Angi-ren ahots ikaragarriare-



### EVERY ACTION HAS REACTION

#### BLACK BACON

ARTZA RECORDS / AMERICAN LEATHER RECORDS

kin aurrera eginez punk-rock-rollean kiribiltzen da.

Diskoaren B aldeari dagokionez, *A hole in the wall* punk-rock iluna eta pisutsua da, kantutzarra. *So much more*-k utzi gaitu gehiagoren gogoz, gogora ekarri digulako APT3Gren bizkortasuna eta Poison Idea-ren sendotasuna; *hit* bat da! *Looking for love* hardcore-punka da, baina, horrez gain, hurbiltzen da dezente *Oi!*aren kadentzia eta talde pertenezkiara; itsaskorra. Bukatzeko, *The distance* tempo erdiko pieza melodiko eta gitarreroa da.

Adi! Iraila bukaeran aukera errepikaezina izango dugu taldea zuzenean ikusteko, AEBetako miseria eta itxurakeria salatzen duen lana aurkeztera Euskal Herrira etorriko direlako. ●

## Albiste izan den irakurzalearena

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**J**ainkoez daukagun ideiaren araber, guzti-guztia ikusten dute Olinpoko goi haietatik: hor dituzu heroiei begira, Troiaren aurrean borrokan ari direnean; eta hitz egiten dute, baten edo bestearen alde jartzen dira, tartean behin esku hartzen dute zerutik, heroien ekintzak gidatuz xake taulako peoiak balira bezala. Baina gauzak ez dira zehazki horrela". Joine. Ez, e? Beste gauza bat egitera etorria zen etxe hartara, baina liburu horren kontrazalean begiak jarri ditu eta, ez du ba orain erdi irakurrita utziko.

Jarraitu egin du, beraz: "Giovanni Nuccik, zeinak mito greziarrak ikertu dituen 20 urte baino gehiagoz, liburu honetan *Iliada* berrirakurri du jainkoen ikuspuntutik, haiek kontakizunaren benetako protagonistatzat hartuz, gure alderdirik sakonenean hunkitzen gaituzten barne-indar gisa. Aldi berean,

mitoaren indar interpretatiboa nabarmendu du gure gaur egungo egoera ulertzeko: pandemia, gerra, krisi klimatikoa, klase politikoaren harrokeria, baliabideen esplotazioa, hartzaroaren disipazioa, patriarkatuaren krisia eta emakumeen kondizioa, identitate sexuala, eta botere zaharrak belaunaldi berriekin daukan konpondu ezina". Joder, interesgarria. Oso.

Zer arraio, geroxeago bukatuko dituegin beharrekoak, pixka batean eseri egingo da irakurtzera. Bestela ere nahiko triste da Erroman abuztu betean lan egin behar hau, lapiko batean baino egosiago -ai, autonomoen miseriak!-, eta total, badaki inork ez diola kargu hartuko galdutako denbora horrengatik -oi, ekintzaitzaren bentajak!-.

Jarri da ba eroso, hain sinopsi kitziagarria daukan Nucci horren liburuko orriak pasa eta pasa. Baina halako ba-

tean, soinu bat. Ez dago bakarrik pisu hartan. Berea ez den pisu hartan. Ezkuktuka sartu den pisu hartan. Ostia!, atera zaio -antzinako portua gogoan, noski-, atean ahozabalka agertu eta ahozabalik geratu zaion jubilatua ikusi duenean -etxeko nagusia noski, kuluxkatik esnatu berritan terrazako butakan lapur irakurzale bat aurkitu duela sinistu ezinda-.

Zaharrari *ma che cazzo!* entzun dion arte ez da guztiz bueltatu, hala ere, Akiles, Hektor eta gainontzeko kuadrillaren lagunartetik errealtate gordinera: ez daki zenbat denbora pasa duen leitzen, baina ez luke han egon beharko. Eta orain epopeiak: lortuko ote du gure heroiak sartu den leku beretik eskapo egitea? Spoiler: ez. Berehala izango ditue gainean poliziak. Eta polizia horiek txibatuta notiziak idazten dituzten kazetariak badute iji eta aja zabaltzeko berria, etxe batean lapurtzera sartu eta irakurtzen entretenitu den baboarena. Ingelesez ere kontatu dute gainera. Mundu guztiaren aurrean barregarri.

Sekzio honetan, dena den, puja berde eder bat bota nahi genuke kontu homerikoetan murgiltzeagatik atxilotu duten ebasle erromatarraren alde. Galdera, gure ustez, ez baita zer egiten duen lapur batek *Iliada*-ri buruzko saiakera irakurtzen. Galderak izan beharko luke zer dela-eta kultura klasikoan interesa daukan norbaitek ez duen aurkitu bizimodua ateratzeko modu seguruagorik besteren etxetik ahal duena harra-pazka eramatea baino. Klaro, horrela begiratuta, asuntuak ez dauka grazia handirik: tipo horri bizitzak dagoeneko lapurtuko zion etxe hartatik eraman zezakeena baino dezente gehiago. Orain utziko al diote, gutxienez, liburua lasai bukatzen. ●





%100 kotoi organikoz landutako kamiseta hau erosita, ekarpen ekonomikoa egingo diozu Amillubi proiektuari, baita ARGIA kazetaritza proiektu independenteari ere. Informazio + [www.amillubi.eus](http://www.amillubi.eus)

Prezioa **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
**BIZUM** bidez ordaindu daiteke.



[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45



# ARGIA EGUTEGIA 2025

*Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.*

Herri xehearen historia ardatz hartuta, seigarren urtez ARGIAko egutegian efemeride historikoak landu ditugu. Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta. Eduardo Galeanok zioen bezala, “oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”.

Orrien aurreko aldeetan, berriz, data, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera-. 2025 on!



Aurre-salmenta:

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45